Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko apirilaren 21a, asteartea — 72 — Martes, a 21 de abril de 2026

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### EKONOMIA SUSTAPENEKO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*«Gipuzkoako industria-enpresetan berrikuntza teknologikoa bultzatzeko BerriTEK+» dirulaguntza programaren oinarri arautzaileak eta 2026ko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2026ko martxoaren 24ko bilkuran:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoaren funtsezko euskarritako bat da ekonomia lehiakorra eta berritzailea bultzatzea, lurraldeko enpresa-sarearen eraldaketa teknologikoan arreta berezia jarrita. Ikuspegi horren oinarrian dagoen uste osoa da lehiakortasuna komunitate kohesionatu baten motorra dela, eta ekimena eta konpromisoa bultzatzen dituela eragin ekonomiko eta sozial handiko proiektuekin.

Gipuzkoaren Aldundiaren ikuspegiak lehiakortasuna komunitatearen motor gisa barneratzen du. Horregatik, ekimena, erantzukizuna eta konpromiso indibidual eta kolektiboa bultzatzen ditugu eragin ekonomikoa eta soziala duten proiektuak garatzearren. Zentzu horretan berrikuntza teknologikoa ezinbesteko tresna da jarduera ekonomiko berriak, kalitatezko enpleguak eta bidezko hazkunderako aukerak sortzeko.

Gaur egun, berrikuntza teknologikoa funtsezko elementua da enpresa-ehunaren iraunkortasuna, lehiakortasuna eta erresilientzia bermatzeko, eraldaketa azkarrak, merkatuaren eskakizun gero eta handiagoak eta presio teknologiko handia ezaugarri dituen ingurune globalean. Industria-enpresek, batez ere enpresa txikiek eta ertainek, beren produktuetan eta prozesuetan teknologia aurreratuak txertatzeko erronkari egin behar diote aurre, dinamika horiei erantzuteko eta etorkizuneko posizionamendua bermatzeko.

Industria-enpresek, batez ere enpresa txiki eta ertainek, zailtasun handiak izaten dituzte prototipoak garatzetik teknologia berriak benetako baldintzetan ezartzeko. Fase kritiko horrek hainbat erronka dakartza berekin, hala nola, saiakuntzen finantzaketa, ziurtagiriak, ingurune operatiboko baliozkotzeak edo merkatura egokitzea, askotan haien gaitasunak gainditzen dituztenak. Oztopo horiek teknologia-eraldaketa mugatzen dute, eta zaildu egiten dute berrikuntzaren emaitzak benetako lehiakortasun-hobekuntzak izatea. Hori dela eta, beharrezkoa da berariazko laguntza bat ematea, inplementazioa errazteko.

Erronka horiei erantzuteko, eta 2024-2027 Plan Estrategikoarekin bat etorriz, proposatzen da garapen eta integrazioko fase kritikoetan teknologia aurreratuak hartzen laguntzeko laguntza-programa bat, arreta berezia jarrita jarduteko lehentasunezko ardatz gisa industria-enpresa txiki eta ertainei.

BerriTEK+ programa tresna estrategikoa da, Gipuzkoako enpresen ingurune operatiboan edo komertzialean oraindik erabat integratu ez diren teknologia aurreratuak txertatzen eta baliozkotzen laguntzeko. Berrikuntza ukigarria sustatzea du helbu-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA Y PROYECTOS ESTRATÉGICOS

*Bases reguladoras y convocatoria 2026 del programa de subvenciones «BerriTEK+ para impulsar la innovación tecnológica de las empresas industriales de Gipuzkoa».*

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 24 de marzo de 2026:

El Plan Estratégico 2024-2027 de la Diputación Foral de Gipuzkoa establece, como uno de sus pilares fundamentales, el impulso de una economía competitiva e innovadora, con especial énfasis en la transformación tecnológica del tejido empresarial del territorio. Esta visión se sustenta en la convicción de que la competitividad constituye el motor de una comunidad cohesionada, favoreciendo la iniciativa y el compromiso con proyectos de alto impacto económico y social.

La visión de la Diputación incorpora la competitividad como motor de una comunidad donde se promueva la iniciativa, la responsabilidad y el compromiso individual y colectivo, con proyectos con impacto económico y social. En ese sentido, la innovación tecnológica es una herramienta esencial para generar nuevas actividades económicas, empleos de calidad y oportunidades de crecimiento equitativo.

La innovación tecnológica constituye hoy un elemento clave para garantizar la sostenibilidad, la competitividad y la resiliencia del tejido empresarial en un entorno global caracterizado por transformaciones rápidas, crecientes exigencias del mercado y una fuerte presión tecnológica. Las empresas industriales, especialmente las pequeñas y medianas, se enfrentan al reto de incorporar tecnologías avanzadas en sus productos y procesos para responder a estas dinámicas y asegurar su posicionamiento futuro.

Las empresas industriales, sobre todo las pequeñas y medianas, suelen tener importantes dificultades para avanzar del desarrollo de prototipos a la adopción efectiva de nuevas tecnologías en condiciones reales. Esta fase crítica implica retos como la financiación de ensayos, certificaciones, validaciones en entorno operativo o adaptación al mercado, que muchas veces superan sus capacidades. Estas barreras limitan la transformación tecnológica y dificultan que los resultados de innovación se traduzcan en mejoras competitivas reales, por lo que se hace necesario un apoyo específico que facilite su implementación.

En respuesta a estos desafíos y en coherencia con el Plan Estratégico 2024-2027, se propone un programa de ayudas orientado a facilitar la adopción de tecnologías avanzadas en fases críticas de desarrollo e integración, con especial atención a las pymes industriales como eje prioritario de actuación.

El programa BerriTEK+ se configura como un instrumento estratégico destinado a apoyar la incorporación y validación de tecnologías avanzadas que aún no han sido plenamente integradas en el entorno operativo o comercial de las empresas gui-

EK\CV GAO-I-2026-02144

ru, hau da, aurreko gaitasunekiko nabarmen hobetutako soluzioak –produktuak edo prozesuak– garatzea.

Ekimena enpresei garapen-fase aurreratuetan dauden teknologiak txertatzen laguntzeko tresna gisa ulertzen da, teknologia horiek ingurune errealetan ezartzea eta baliozkotzea erraztuz. Helburua da erakundeen lehia-posizionamendua indartzea, eraginkortasun operatiboa eta merkatuaren erronkei erantzuteko gai diren produktu berrien sorrera bultzatuko duten soluzio teknologikoen bidez.

Teknologia helduak integratzen dituzten proiektuetara bideratuta dago, oraindik ere aplikatzen ez direnak testuinguru produktibo, komertzial edo operatiboetan. Jarduera-ildo horren bidez, teknologia modu eraginkorrean erabiltzen lagundu nahi da, berrikuntza teknologikoa sustatuz lehiakortasuna hobetzeko. Proiektuek produktu edo prozesuen garapena jaso beharko dute, betiere berriak badira edo enpresaren aldez aurreko gaitasunekiko hobekuntza nabarmena badakarte.

Programa bakarrean integratzen dira lehen modu independentean kudeatzen ziren bi laguntza-lerro: «Gipuzkoa Digitala: 4.0 produktua» eta «BerriTEK+: Heldutasun teknologiko handiko proiektuak». Biek helburu bera dute: berrikuntza teknologikoa indartzea lehiakortasunerako faktore gisa. Hauek dira birdefinitutako laguntza-lerroak:

— BerriTEK+ Produktua: Berrikuntza teknologikoa dakarten merkaturako produktu eta zerbitzu berriak garatzera bideratua. Ondorio horietarako, berrikuntzatzat hartzen da produktu edo zerbitzu berri edo hobetuen garapena, baldin eta aurretik eskainitakoetatik nabarmen ezberdinak badira.

— BerriTEK+ Prozesua: Industria-prozesuetan teknologia aurreratuak ezartzera eta baliozkotzera bideratua. Garapen teknologikoko azken faseetako proiektuei zuzenduta dago, eta operazio errealean benetan integratzea dute helburu.

Ildo bakoitza bi jarduera-motatan egituratzen da, eta helburu teknologiko komuna badute ere, heldutasun berritzaileko fase desberdinei erantzuten diete:

— A mota: Azken faseetan teknologiak eraginkortasunez hartzen laguntzea, haien baliozkotze operatiboaren eta ingurune errealetan frogatzearen bidez.

— B mota: ETE industrialen prestakuntza estrategikoa babestea, berrikuntza teknologikoko bideak eta ibilbide-orri teknologikoak zehazten lagunduz.

Dirulaguntza lerro hauek 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (BPE) sartuta daude.

Horiek horrela, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onestea, erabaki honen I., II. eta III. eranskin gisa eransten diren oinarri arautzaile orokorrak eta espezifikoak, «Gipuzkoako industria-enpresetan berrikuntza teknologikoa bultzatzeko BerriTEK+» programako dirulaguntzak emateko.

*Bigarren.* Onestea aipatu dirulaguntzen 2026ko deialdia, erabaki honen IV. eranskinean jasota dagoena.

*Hirugarren.* 2026ko ekitaldiko deialdiari aurre egiteko 2.000.000 €ko gastua baimentzea, aurrekontu sail hauen kontura:

— BerriTEK+ Prozesua.

1 0520.210.770.00.08 2026: 700.000 €.

5 0520.210.770.00.08 2027: 300.000 €.

puzcoanas. Su finalidad es promover una innovación tangible, entendida como el desarrollo de soluciones –productos o procesos– sustancialmente mejoradas respecto a las capacidades previas.

La iniciativa se concibe como un instrumento para apoyar a las empresas en la incorporación de tecnologías en fases avanzadas de desarrollo, facilitando su implementación y validación en entornos reales. Su objetivo es reforzar el posicionamiento competitivo de las organizaciones mediante soluciones tecnológicas que impulsen tanto la eficiencia operativa como la creación de nuevos productos capaces de responder a los retos del mercado.

Está orientada a proyectos que integren tecnologías maduras, aún no aplicadas en contextos productivos, comerciales u operativos. Mediante esta línea de actuación, se busca favorecer su adopción efectiva, fomentando la innovación tecnológica como motor de mejora competitiva. Los proyectos deberán incluir el desarrollo de productos o procesos siempre que sean nuevos o supongan una mejora sustancial respecto a las capacidades previas de la empresa.

Se integran en un único programa dos líneas de apoyo que anteriormente se gestionaban de forma independiente: «Gipuzkoa Digitala: Producto 4.0» y «BerriTEK+: Proyectos con alto grado de madurez tecnológica». Ambas comparten un mismo objetivo: reforzar la innovación tecnológica como factor de competitividad. Las lineas de apoyo redefinidas son las siguientes:

— BerriTEK+ Producto: Orientada al desarrollo de nuevos productos y servicios destinados al mercado, que incorporen innovación de carácter tecnológico. A estos efectos, se entiende por innovación el desarrollo de productos o servicios, nuevos o mejorados, que difieran de manera significativa de los ofrecidos previamente.

— BerriTEK+ Proceso: Orientada a la implementación y validación de tecnologías avanzadas en procesos industriales. Se dirige a proyectos en fases finales de desarrollo tecnológico que persiguen su integración efectiva en operaciones reales.

Cada línea se estructura en dos tipos de actuación que, si bien comparten un objetivo tecnológico común, responden a fases diferenciadas de madurez innovadora:

— Tipo A: Facilitar la adopción efectiva de tecnologías en sus fases finales mediante su validación operativa y demostración en entornos reales.

— Tipo B: Apoyar la preparación estratégica de las pymes industriales, facilitando la definición de itinerarios de innovación tecnológica y hojas de ruta tecnológicas.

Estas líneas de subvenciones se encuentran incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 (PES).

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras generales y específicas, que se adjuntan como anexo I, II y III al presente acuerdo, para la concesión de las subvenciones del «Programa BerriTEK+ para impulsar la innovación tecnológica de las empresas industriales de Gipuzkoa».

*Segundo.* Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2026 de las citadas subvenciones, que se acompaña como anexo IV al presente acuerdo.

*Tercero.* Autorizar un gasto por importe de 2.000.000 € para hacer frente a la convocatoria del ejercicio 2026 con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

— BerriTEK+ Proceso.

1 0520.210.770.00.08 2026: 700.000 €.

5 0520.210.770.00.08 2027: 300.000 €.

EK\CV GAO-I-2026-02144

— BerriTEK+ Produktua.

1 0520.210.770.00.01 2026: 700.000 €.

5 0520.210.770.00.01 2027: 300.000 €.

Aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak onartutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, deialdi berri bat egin gabe. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzea.

*Laugarren.* Erabaki honek onesten dituen oinarri arautzaileek ondorioak izango dituzte Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egun beretik aurrera.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalean argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2026ko martxoaren 30a.—Idazkari teknikoa.
(2144)

I. ERANSKINA

*«Gipuzkoako industria-enpresetan berrikuntza teknologikoa bultzatzeko BerriTEK+ programaren» oinarri arautzaile orokorrak.*

*1. oinarria. Programaren objektua.*

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoaren funtsezko euskarritako bat da ekonomia lehiakorra eta berritzailea bultzatzea, lurraldeko enpresa-sarearen eraldaketa teknologikoan arreta berezia jarrita. Ikuspegi horren oinarrian dagoen uste osoa da lehiakortasuna komunitate kohesionatu baten motorra dela, eta ekimena eta konpromisoa bultzatzen dituela eragin ekonomiko eta sozial handiko proiektuekin.

Gaur egun, eraldaketa azkarrak, merkatuaren eskakizun gero eta handiagoak eta presio teknologiko handia ezaugarri dituen ingurune globalean, berrikuntza teknologikoa funtsezko elementua da enpresa-ehunaren iraunkortasuna, lehiakortasuna eta erresilientzia bermatzeko. Industria-enpresek, batez ere enpresa txikiek eta ertainek, beren produktuetan eta prozesuetan teknologia aurreratuak txertatzeko erronkari egin behar diote aurre, dinamika horiei erantzuteko eta etorkizuneko posizionamendua bermatzeko.

Gipuzkoako ETE industrialen kasuan, erronka hori bereziki garrantzitsua da heldutasun teknologiko handiko mailetan (TRL 7-9), balidazio teknikoak inbertsio esanguratsuak eskatzen baititu sistemen saiakuntzetan, ziurtagirietan eta integrazioan. Enpresa askok, batez ere txikiek eta ertainek, ez dute beharrezko baliabide finantzariorik, giza baliabiderik edo teknikorik garapenaren azken fase horiei aurre egiteko, eta inbertsio handiak egin behar dira fase horiek baliozkotzeko, ziurtatzeko, merkatura egokitzeko eta dauden sistemekin integratzeko.

Horri gehitzen zaio ekoizpen-ingurune errealetan teknologia berriak sartzearekin lotutako arriskua, non edozein akatsek eragin zuzena izan baitezake negozioaren lehiakortasunean edo jarraitutasunean. Era berean, oraindik ere mugak daude berrikun-

— BerriTEK+ Producto.

1 0520.210.770.00.01 2026: 700.000 €.

5 0520.210.770.00.01 2027: 300.000 €.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

*Cuarto.* Las bases reguladoras que se aprueban en virtud del presente acuerdo surtirán efectos desde el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante la Sección de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal de Instancia de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 30 de marzo de 2026.—El secretario técnico.
(2144)

ANEXO I

*Bases reguladoras generales del «programa BerriTEK+ para impulsar la innovación tecnológica de las empresas industriales de Gipuzkoa».*

*Base 1.ª Objeto del programa.*

El Plan Estratégico 2024-2027 de la Diputación Foral de Gipuzkoa establece, como uno de sus pilares fundamentales, el impulso de una economía competitiva e innovadora, con especial énfasis en la transformación tecnológica del tejido empresarial del territorio. Esta visión se sustenta en la convicción de que la competitividad constituye el motor de una comunidad cohesionada, favoreciendo la iniciativa y el compromiso con proyectos de alto impacto económico y social.

La innovación tecnológica constituye hoy un elemento clave para garantizar la sostenibilidad, la competitividad y la resiliencia del tejido empresarial en un entorno global caracterizado por transformaciones rápidas, crecientes exigencias del mercado y una fuerte presión tecnológica. Las empresas industriales, especialmente las pequeñas y medianas, se enfrentan al reto de incorporar tecnologías avanzadas en sus productos y procesos para responder a estas dinámicas y asegurar su posicionamiento futuro.

Para las pymes industriales de Gipuzkoa, este reto resulta especialmente relevante en los niveles de madurez tecnológica altos (TRL 7-9), en los que la validación técnica exige inversiones significativas en ensayos, certificaciones e integración de sistemas. Muchas empresas, especialmente las pequeñas y medianas, carecen de los recursos financieros, humanos o técnicos necesarios para afrontar estas fases finales de desarrollo, que implican importantes inversiones en validación, certificación, adaptación al mercado e integración con sistemas existentes.

A ello se añade el riesgo percibido asociado a la introducción de tecnologías emergentes en entornos productivos reales, donde cualquier error puede afectar de forma directa a la competitividad o continuidad del negocio. Asimismo, persisten limi-


EK\CV GAO-I-2026-02144

tzaren kudeaketan, zailtasunak daude hornitzaile teknologiko egokietara iristeko, eta ekosistema berritzaileko eragileekin lankidetzan aritzeko kultura ez da nahikoa. Horregatik guztiagatik, laguntza-tresna publikoak erabakigarriak dira arrakala hori ixteko eta I+Gko inbertsioak balio ekonomiko eta soziala sor dezan laguntzeko.

Ekimen hau enpresei teknologiak hartzea errazteko tresna gisa planteatzen da; lehia-posizionamendua hobetzen lagunduko duten soluzioak aztertzea, inplementatzea eta baliozkotzea ahalbidetuz. Gainera, eraginkortasun operatibora ez ezik, egungo merkatuaren erronkei erantzungo dieten produktu berriak sortzera bideratutako berrikuntza-prozesuak aktibatu nahi ditu.

Proiektuek berrikuntza teknologikoko osagai bat izan beharko dute, hau da, garatzea enpresak aurrez eskaintzen zituen produktuek edo prozesuekiko berriak edo nabarmen hobetuak diren produktuak edo prozesuak –edo biak konbinatuta–.

Programa honek hainbat laguntza lerro ezartzen ditu Gipuzkoako enpresaren eraldaketa sustatzeko.

Programa oinarri espezifiko baten edo gehiagoren bidez garatuko da, bere objektuari ikuspegi desberdinetatik helduz.

Deialdi honetako laguntzak 651/2014 (EB) Salbuespenen Erregelamendu Orokorrean (EBAO 187, 2014ko ekainaren 26koa) xedatutakoaren mende daude. Erregelamendu hori Batzordearen 2020ko uztailaren 2ko 2020/972 (EB) Erregelamenduak («651/2014 Erregelamendua») luzatu zuen. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak Erregelamenduaren 25. eta 28. artikuluetan jasota daude.

Proiektuak garapen esperimentalaren kategorian kokatu beharko dira, Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren arabera, eta produktu, prozesu edo zerbitzu berrien proiektu pilotuak kontzeptualizatzeko, diseinatzeko, planifikatzeko, prototipatzeko, frogatzeko, baliozkotzeko eta egiteko jarduerak barne hartu ahal izango dituzte, betiere jarduera horiek etorkizunean merkataritza-ustiapena ahalbidetuko duten hobekuntza tekniko esanguratsuak lortzera bideratuta badaude.

Ondorio horietarako, garapen esperimentala garatu nahi den produktuarekin, prozesuarekin edo zerbitzuarekin zuzenean lotuta dagoen heinean bakarrik lagunduko da diruz, eta ez du barnean hartuko lehendik dauden produktuetan, prozesuetan edo zerbitzuetan ohiko aldaketak, doikuntza txikiak edo aldizkako hobekuntzak egiteko jarduerarik.

«Garapen esperimentala» da zientziaren, teknologiaren edo enpresaren arloan, edo bestelakoetan, dagoeneko ezagunak diren jakintzak eta teknikak eskuratzea, konbinatzea, konfiguratzea eta erabiltzea, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak edo hobetuak egiteko.

Adibidez, produktu, prozesu edo zerbitzu berrien kontzeptua, plangintza eta dokumentazioa zehazteko jarduerak sartu ahal izango dira proiektuetan. Garapen esperimentalak bere baitan har ditzake ondoko hauek: prototipoak sortzea, demostrazioa eta proiektu pilotuak egitea, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak edo hobetuak probatu eta baliozkotzea funtzionamendu baldintza errealak ordezkatzen dituzten inguruneetan, betiere helburu nagusitzat badute hobekuntza teknikoak txertatzea behar bezala errotuta ez dauden produktu, prozesu edo zerbitzuetan.

Era berean, bere baitan har dezake komertzialki erabil daitezkeen prototipo edo proiektu pilotuen garapena, baldin eta amaierako produktu komertziala badira eta horiek fabrikatzea garestiegia bada soilik demostrazio eta baliozkotze prozesuetan erabiltzeko. Garapen esperimentalak ez ditu bere baitan hartzen produktuetan, produkzio ildoetan, fabrikazio prozesuetan, lehendik existitzen diren zerbitzuetan eta aribidean dauden beste operazio batzuetan egiten diren ohiko edo aldizkako aldaketak, nahiz eta aldaketa horiek hobekuntzak ekarri.

taciones en la gestión de la innovación, dificultades para acceder a proveedores tecnológicos adecuados y una cultura de colaboración aún insuficiente con los agentes del ecosistema innovador. Por todo ello, los instrumentos públicos de apoyo se consideran determinantes para cerrar esta brecha y facilitar que la inversión en I+D genere valor económico y social.

Esta iniciativa se plantea como un instrumento para facilitar a las empresas la adopción de tecnologías; permitiendo analizar, implementar y validar soluciones que contribuyan a la mejora de su posicionamiento competitivo. Además, busca activar procesos de innovación orientados no solo a la eficiencia operativa, sino también a la generación de nuevos productos que respondan a los desafíos del mercado actual.

Los proyectos deberán incorporar un componente de innovación tecnológica, entendida como el desarrollo de productos o procesos –o la combinación de ambos– que sean nuevos o estén sustancialmente mejorados respecto a los ofrecidos previamente por la propia organización.

El presente programa establece distintas líneas de apoyo para impulsar esta transformación de la empresa de Gipuzkoa.

El programa podrá desarrollarse mediante una o varias bases específicas que abordarán su objeto desde perspectivas diversas.

Las ayudas contempladas en la presente convocatoria están sujetas a lo dispuesto en el Reglamento general de exención (UE) n.º 651/2014 publicado en el DOUE 187, 26 de junio de 2014 prorrogado por el Reglamento (UE) 2020/972 de la Comisión de 2 de julio de 2020 («Reglamento n.º 651/2014»). Las actuaciones subvencionables se encuadran en los artículos 25 y 28 del Reglamento.

Los proyectos deberán enmarcarse en la categoría de desarrollo experimental, según el Reglamento (UE) n.º 651/2014 de la Comisión, de 17 de junio, y podrán incluir actividades de conceptualización, diseño, planificación, prototipado, demostración, validación y elaboración de proyectos piloto de nuevos productos, procesos o servicios, siempre que dichas actividades estén orientadas a obtener mejoras técnicas significativas que permitan su futura explotación comercial.

A estos efectos, el desarrollo experimental solo será subvencionable en la medida en que esté directamente vinculado al producto, proceso o servicio que se desea desarrollar y no incluirá actuaciones dirigidas a modificaciones rutinarias, ajustes menores o mejoras periódicas en procesos, productos o servicios ya existentes.

Se considera «desarrollo experimental» la adquisición, combinación, configuración y empleo de conocimientos y técnicas ya existentes, de índole científica, tecnológica, empresarial o de otro tipo, con vistas a la elaboración de productos, procesos o servicios nuevos o mejorados.

Podrá incluir también, por ejemplo, actividades de definición conceptual, planificación y documentación de nuevos productos, procesos o servicios; el desarrollo experimental podrá comprender la creación de prototipos, la demostración, la elaboración de proyectos piloto, el ensayo y la validación de productos, procesos o servicios nuevos o mejorados, en entornos representativos de condiciones reales de funcionamiento, siempre que el objetivo principal sea aportar nuevas mejoras técnicas a productos, procesos o servicios que no estén sustancialmente asentados.

Así mismo, podrá incluir el desarrollo de prototipos o proyectos piloto que puedan utilizarse comercialmente cuando sean necesariamente el producto comercial final y su fabricación resulte demasiado onerosa para su uso exclusivo con fines de demostración y validación; el desarrollo experimental no incluye las modificaciones habituales o periódicas efectuadas en productos, líneas de producción, procesos de fabricación, servicios existentes y otras operaciones en curso, aun cuando esas modificaciones puedan representar mejoras de los mismos.

EK\CV GAO-I-2026-02144

*2. oinarria. Dirulaguntzen onuradun izateko enpresek bete beharreko baldintzak.*

2.1. Erakunde onuradunak izango dira oinarri espezifikoetan ezartzen diren tamaina eta izaera beharkizunak betetzen dituztenak, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

— Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 12. artikuluan ezarritako debekuen eraginpean ez egotea.

— Zigor administratiborik edo penalik ez izatea sexu diskriminazioa dela eta, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak aurreikusitakoaren arabera.

*Baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko, eskatzaileak erantzukizunpeko aitorpen bat aurkeztuko du.

— Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotea.

Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak egiaztatuko du eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae, Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoa) edo sarbide publikoko plataformen bidez; hori posible izango ez balitz, enpresa eskatzaileari eskatuko zaio dagokion dokumentazioa aurkeztea.

Eskaeran berariaz adierazi ahal izango dute egiaztapen automatikoaren aurka daudela; kasu horretan, Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako organo administratiboek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

2.2. Enpresak tamainaren arabera bereizi behar direnean, enpresaren tamaina zehazteko kontuan hartuko dira ekainaren 17ko Europako Batzordearen 651/2014 Erregelamenduaren (EB) I. eranskinean jasotako definizioak eta kalkuluak.

2.3. Ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduko (EB) 6. artikuluaren arabera, oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak emango dira soilik laguntza jasoko duen enpresaren jardueran pizgarri efektua sortzen badute:

* ETE baten kasuan, laguntzak pizgarri efektua duela ulertuko da onuradunak proiektuan edo jardueran lanean hasi aurretik aurkeztu badu laguntza eskaera.

* Enpresa handiei dagokienez, laguntza batek pizgarri efektua duela ulertuko da baldin eta aurreko apartatuan ezarritako baldintza betetzeaz gain, laguntzak emaitza hauetakoren bat edo gehiago izango dituela egiaztatzen badu:

— Laguntzari esker, proiektuaren edo jardueraren irismena nabarmen handituko da.

— Laguntzari esker, onuradunak proiektuan edo jardueran inbertituko duen zenbateko osoa nabarmen handituko da.

— Proiektuaren edo jardueraren exekuzio erritmoa nabarmen handituko da.

2.4. Oinarri espezifiko bakoitzean zehaztuko da dirulaguntza hauetara enpresak bakarka edo entitate talde batek bultzatutako proiektuak aurkeztu daitezkeen. Talde proiektuetan, entitate batek lidergoa hartuko du eta eskaeraren arduraduna izango da.

*3. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.*

3.1. Dirulaguntzen lerro bakoitzeko oinarri espezifikoetan zehaztuko dira dirulaguntza bakoitzaren xede diren jarduketak eta, lerro bakoitzari dagokionez, diruz lagundu daitezkeen gastuak.

*Base 2.ª Requisitos que deben reunir las entidades beneficiarias.*

2.1. Tendrán la consideración de entidades beneficiarias aquellas que reúnan los requisitos de tamaño y naturaleza que se establezcan en las bases específicas, siempre que reúnan los siguientes requisitos:

— No estar afectadas por ninguna de las prohibiciones del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

— No haber sido sancionadas, administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, según lo previsto en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

*La acreditación de estos requisitos se efectuará mediante la presentación de una declaración responsable.

— Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social.

El Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos comprobará el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. A tal fin, recabará los referidos datos directamente de los organismos emisores de los mismos a través de plataformas corporativas, de intermediación (Nisae, nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi) o de acceso público; en caso de que ello no fuera posible, se requerirá su aportación a la empresa solicitante.

Podrán manifestar en la solicitud su oposición expresa a la verificación automática, en cuyo caso deberán aportar las correspondientes certificaciones expedidas por las instancias administrativas de Hacienda y Seguridad Social.

2.2. Cuando sea necesaria la distinción de empresas por tamaños, para la determinación del tamaño de empresa, se utilizarán las definiciones y método de cálculo efectivos contenidos en el anexo I del Reglamento (UE) n.º 651/2014, de la Comisión Europea, de 17 de junio.

2.3. De acuerdo con el artículo 6 del Reglamento (UE) n.º 651/2014, de 17 de junio, las ayudas reguladas en estas bases solo serán aplicables si tienen efecto incentivador sobre la actividad de la empresa objeto de la ayuda:

* En el caso de una PYME se considera que la ayuda concedida tiene efecto incentivador si, antes de comenzar a trabajar en el proyecto o actividad, el beneficiario ha presentado la solicitud de ayuda.

* Se considerará que las ayudas concedidas a grandes empresas tienen un efecto incentivador si, además de cumplir la condición establecida en el apartado anterior acredita que la ayuda tendrá uno o varios de los siguientes resultados:

— Un aumento sustancial del alcance del proyecto o actividad gracias a las ayudas, o

— Un aumento sustancial del importe total invertido por el beneficiario en el proyecto o actividad gracias a las ayudas, o

— Una aceleración sustancial del ritmo de ejecución del proyecto o actividad de que se trate.

2.4. Cada una de las bases específicas determinará si a estas subvenciones podrán presentarse proyectos impulsados por empresas de manera individual o por un conjunto de entidades, en cuyo caso, una ejercerá de líder de todas ellas y será la responsable del proyecto.

*Base 3.ª Gastos subvencionables.*

3.1. En las bases específicas de cada línea de subvención, se detallarán las actuaciones objeto de subvención y gastos susceptibles de apoyo de cada una de las líneas.

EK\CV GAO-I-2026-02144

3.2. Aintzat hartuko dira soilik dirulaguntzaren xede den proiektuarekin zalantzarik gabe identifikatu daitezkeen gastuak.

Fakturan jasanarazitako balio erantsiaren gaineko zerga ez da diruz lagundu daitekeen gastutzat joko.

3.3. Diruz lagundutako jarduera egitea erakunde onuradunaren betebeharra da.

Proiektua garatzeko, jardueren zati bat azpikontratatu daiteke (lan teknikoak edo espezializatuak). Hala ere, azpikontratazioetarako guztizko gastuak ezingo du gainditu proiektuaren diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 50a.

Muga hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen Foru Arauaren Erregelamendua onartzen duen apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren 44. artikuluaren arabera ezartzen da.

Azpikontratazioaren gehieneko ehuneko hori gainditzen duten proiektuak ez dira onartuko.

3.4. Zeharkako gastu hautagarritzat hartuko dira, deialdi bakoitzak ezartzen dituen baldintzetan, eta gehienez ere % 20ko ehunekoa aplikatuko zaie langile propioen zuzeneko gastuei.

Ez da beharrezkoa izango justifikazio dokumental indibidualizaturik aurkeztea kontzeptu bakoitzeko. Gastu horien barruan sartuko dira proiektua gauzatzearekin lotutako erakundearen egitura- eta administrazio-kostu orokorrak.

3.5. Proiektu bat ez da onartuko definizioan hutsune nabarmenak baditu (azalpen argia) edo emandako daturen bat faltsutu dela ikusten bada, dagokiona ez den puntuazioa lortzeko asmoz. Kasu horretan, gainera, erantzukizunagatiko beste egintza batzuk erabaki daitezke.

3.6. Nolanahi ere, proiektuetan ez da onartuko sexuaren araberako bereizkeriarik eta saiatu beharko dira sexuaren araberako zereginak eta estereotipoak ezabatzen.

*4. oinarria. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

4.1. Oinarri espezifikoek zehaztuko dute entitate bakoitzak zenbat proiektu aurkez ditzakeen gehienez, edo zenbat onartu daitezkeen entitate bakoitzeko.

4.2. Eskaerak eta erantsitako dokumentazioa bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu behar dira, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez (https://egoitza.gipuzkoa.eus), dirulaguntzen atarian sartuz eta horretarako eskuragarri dagoen eskabidea betez. Eskaera orria, eta hari erantsitako dokumentazioa aurkezterako orduan kontuan hartuko da, irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua, foru administrazioaren esparruan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duena.

4.3. Entitate interesdunaren ordezkari gisa aurkeztutako eskabideek bat etorri beharko dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren legezko ordezkaritzaren errolda arautzen duen urriaren 28ko 573/2014 Foru Aginduarekin edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren borondatezko ordezkaritzaren errolda korporatiboa arautzen duen azaroaren 4ko 881/2014 Foru Aginduarekin.

Oinarri espezifiko bakoitzak zehaztuko du dirulaguntza horietara enpresek banaka edo erakunde multzo batek bultzatutako proiektuak aurkeztu ahal izango diren; kasu horretan, enpresa bat izango da guztien liderra eta bera izango da proiektuaren arduraduna.

4.4. Deialdiari buruzko informazioa web orri honetan eskura daiteke: www.gipuzkoa.eus/dirulaguntzak.

4.5. Eskaerak aurkezteko epea deialdian ezarriko da.

4.6. Eskaera egin duten erakundeak ez daude beharturik Gipuzkoako Foru Aldundiari aurrez eman diren dokumentuak aur-

3.2. Solo se considerarán los gastos que puedan identificarse inequívocamente con el proyecto objeto de la subvención.

No tendrá la consideración de gasto elegible el Impuesto sobre el Valor Añadido repercutido en factura.

3.3. La realización de la actividad subvencionada constituye una obligación de la entidad beneficiaria.

Para el desarrollo del proyecto se permite subcontratar parte de las actividades (trabajos técnicos o especializados). No obstante, el gasto total destinado a subcontrataciones no podrá superar el 50 % del presupuesto subvencionable del proyecto.

Este límite se establece de acuerdo con el artículo 44 del Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, por el que se aprueba el Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Los proyectos que superen este porcentaje máximo de subcontratación no serán admitidos.

3.4. Se considerarán gastos indirectos elegibles, en los términos que establezca cada convocatoria, aplicando como máximo el porcentaje del 20 % sobre los gastos directos de personal propio.

No será necesaria la presentación de justificación documental individualizada por cada concepto. Estos gastos comprenderán los costes generales de estructura y administración de la entidad relacionados con la ejecución del proyecto.

3.5. No se tendrán en cuenta aquellos proyectos que presenten carencias relevantes en su definición (claridad de la exposición) o en los que se detecte falsedad en alguno de los datos aportados con intención de obtener una puntuación que de otra forma no le correspondería, sin perjuicio de las actuaciones de responsabilidad que pudieran determinarse por ello.

3.6. Los proyectos no serán discriminatorios por razón de sexo y deberán procurar la eliminación de roles y estereotipos en función del sexo.

*Base 4.ª Forma y plazo de presentación de solicitudes.*

4.1. Las bases específicas definirán el número máximo de proyectos que podrán presentar o ser aprobados por cada una de las entidades.

4.2. Las solicitudes, junto con el resto de documentación, deberán presentarse, vía Internet, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), accediendo al portal de subvenciones y cumplimentando el formulario específico disponible a estos efectos. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

4.3. Las solicitudes formuladas en representación de la persona interesada deberán de ajustarse bien a lo dispuesto en la Orden Foral 573/2014, de 28 de octubre, por la que se regula el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa, o bien a los términos expuestos en la Orden Foral 881/2014, de 4 de noviembre, por la que se regula el censo corporativo de representación voluntaria de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Cada una de las bases específicas determinará si a estas subvenciones podrán presentarse proyectos impulsados por empresas de manera individual o por un conjunto de entidades, en cuyo caso, una ejercerá de líder de todas ellas y será la responsable del proyecto.

4.4. La información de la convocatoria estará disponible en la página web www.gipuzkoa.eus/subvenciones.

4.5. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria.

4.6. Las entidades solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que hayan sido aportados anteriormente

EK\CV GAO-I-2026-02144

keztera. Ondorio horietarako, interesdunak adierazi beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluak zehazten duenari jarraituz. Kasu hauetan, eskaera orrian zehaztu beharko du noiz eta zer organo edo dependentziatan aurkeztu edo igorri ziren aipatutako dokumentuak. Dokumentazioa lortzea ezinezkoa den kasuetan, organo eskumena duen organoak eskatu ahal izango dio eskaera egin duen erakundeari, edo aurkez dezala, edo, ezin badu, beste nolabait egiazta ditzala dokumentuan egiaztatu beharreko eskakizunak.

4.7. Aurkeztutako eskaera behar bezala ebaluatu eta ebazteko behar adina dokumentu eta informazio eska ditzake Departamentuak.

4.8. Eskaera orriak, edo harekin batera aurkeztutako agiriek, identifikazio daturik jasoko ez balute, akatsen bat izango balute edo daturen bat faltako balute, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, hamar eguneko epea emango litzaioke eskatzaileari hutsegite horiek konpontzeko, edo dagozkion dokumentuak aurkezteko, eta ohartaraziko litzaioke, horrela egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, aipatutako legeak 21.1 artikuluan aurreikusitako eran emandako ebazpenaren ondoren.

4.9. Enpresa eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak posta elektronikoaren bidez dirulaguntzaren eskaeran harremanetarako pertsona gisa identifikatutakoaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiak.

4.10. Erakunde eskatzaile batek eskabidea dirulaguntza-lerro batean aurkezten badu eta organo kudeatzaileak irizten badio proiektua edo jarduketa bat datorrela deialdian aurreikusitako beste lerroarekin, eskabidea ofizioz bideratu ahal izango da lerro horretara, erakunde eskatzaileak beste eskaera bat aurkeztu beharrik gabe.

Eskabidea azkenean atxikitzen zaion dirulaguntza-lerrorako ezarritako betekizunen, baldintzen eta balorazio-irizpideen arabera izapidetuko da.

*5. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura.*

5.1. Dirulaguntzak emateko prozedura elkarrekiko norgehiagoka izango da, oinarri espezifikoetan jasotako laguntza lerro bakoitzeko deialdia eta hautaketa prozedura bakarra eginez.

5.2. Laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, deialdi publiko bidez. Deialdia organo eskumendunak onartuko du eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

*6. oinarria. Balorazio irizpideak.*

Deialdira aurkezten diren eskaerak oinarri arautzaile espezifikoetan jarduera lerro bakoitzerako zehazten diren irizpideen arabera baloratuko dira.

*7. oinarria. Finantzaketa.*

Emango diren dirulaguntzak deialdiko urteari dagozkion Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdian zehaztuko da zein aurrekontu kredituren kargura finantzatuko diren subentzioak.

*8. oinarria. Dirulaguntzen zenbatekoa.*

8.1. Dirulaguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera zehaztukoa da, betiere aurrekontu baliabideak eta oinarri hauetan ezarritako balorazio irizpideak kontuan hartuta.

8.2. Entitate eskatzaileak aurkeztutako aurrekontu banakatua edo ondorengo aldaketak erreferentziatzat hartuko dira

a la Diputación Foral de Gipuzkoa. A estos efectos, el interesado deberá indicar en qué momento y ante qué órgano administrativo presentó los citados documentos de conformidad con lo previsto en el artículo 28.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. En estos casos, deberán indicar en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos dichos documentos. En los supuestos de imposibilidad material de obtener la documentación, el órgano competente podrá requerir a la entidad solicitante su presentación o, en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento.

4.7. El departamento podrá requerir cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

4.8. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 21.1 de la citada ley.

4.9. La empresa solicitante dará validez a todas las comunicaciones emitidas por el Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos vía e-mail a la cuenta de correo electrónico de la persona de contacto identificada en la solicitud de ayuda.

4.10. En el supuesto de que una entidad solicitante presente su solicitud en una línea de subvención y el órgano gestor considere que el proyecto o actuación se adecúa a la otra línea prevista en la convocatoria, la solicitud podrá ser reconducida de oficio a dicha línea, sin necesidad de que la entidad solicitante presente una nueva solicitud.

La solicitud se tramitará conforme a los requisitos, condiciones y criterios de valoración establecidos para la línea de subvención a la que finalmente se adscriba.

*Base 5.ª Procedimiento de concesión.*

5.1. El procedimiento de concesión de las presentes subvenciones será el de concurrencia competitiva, mediante convocatoria y procedimiento selectivo único por cada una de las líneas de apoyo recogidas en las bases específicas.

5.2. El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio mediante convocatoria pública, aprobada por el órgano competente y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*Base 6.ª Criterios de valoración y puntuaciones.*

Las solicitudes que se presenten a la convocatoria se valorarán de acuerdo con los criterios que para cada una de las líneas de actuación se fijan en sus bases reguladoras específicas.

*Base 7.ª Financiación.*

Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa correspondientes al año de la convocatoria. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

*Base 8.ª Cuantía de las subvenciones.*

8.1. El importe subvencionable y la subvención se fijarán con arreglo a la documentación aportada por la entidad solicitante, teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias y los criterios de valoración definidos.

8.2. El presupuesto desglosado presentado por la entidad solicitante o sus modificaciones posteriores servirán de referen-

EK\CV GAO-I-2026-02144

dirulaguntzaren azken zenbatekoa zehazteko; zenbateko hori jardueraren kostu diruz lagungarriaren portzentaje gisa kalkulatuko da, eta dirulaguntzaren azken zenbatekoak ezingo du hasieran emandakoa gainditu.

8.3. Dirulaguntzen ehunekoa eta gehieneko zenbatekoa, dirulaguntza lerro bakoitzeko zehaztuko da, proiektu motaren, entitate eskatzailearen eta gastu motaren arabera.

*9. oinarria. Prozedura izapidetzeko eskumena duen organoa.*

9.1. Prozedura izapidetuko duen organoa Berrikuntzako Zerbitzua izango da.

9.2. Aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatzeko, Batzorde Ebaluatzailea eratuko da. Batzorde horretan bi sexuen arteko ordezkaritza orekatua bilatuko da; ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 20. artikuluan aurreikusitakoa betetzen bada. Bestalde, Batzorde Ebaluatzailean egongo dira, gutxienez, kargu hauek betetzen dituzten pertsonak edo haiek eskuordetutakoak:

— Berrikuntzako Zerbitzuko burua.

— Berrikuntzako Zerbitzuko teknikaria.

— Departamentuko Idazkaritza Teknikoko funtzionarioa.

9.3. Batzorde horrek aholkularitza eta txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu, aurkeztutako eskabideak behar bezala baloratzeko.

*10. oinarria. Eskaerak ebaztea.*

10.1. Dirulaguntza eman ala ez ebaztea Departamentuko foru diputatuari dagokio, kontuan hartuta Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruz indarrean dagoen foru dekretuan zehaztutakoa.

10.2. Laguntzak eman edo, hala dagokionean, ukatzeko erabakia eskatzaile bakoitzari indibidualki jakinaraziko zaio. Hala eta guztiz ere, organo emaileak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu emandako dirulaguntzak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 17. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

10.3. Erakunde onuradunak 5 egun naturaleko epea izango du, jakinarazpena egiten den egunetik zenbatzen hasita, hura onartzeko, eta isilbidez onartutzat joko da kontrako berariazko jakinarazpenik ez badago. Gerora egindako uko egite oro, justifikazio goiztiar eta argirik gabe, ez-betetzetzat hartuko da, eta zehapena jaso ahal izango du.

10.4. Emakidaren ebazpenak, dirulaguntza ematen zaien enpresen zerrenda jasotzeaz gain, enpresa eskatzaileek lortutako puntuazioaren zerrenda jaso beharko du, beheranzko hurrenkeran, ezarritako balorazio-irizpideen arabera, enpresa horiei, pertsona onuradun izateko baldintza administratibo eta teknikoak beteta ere, ez zitzaielako dirulaguntzarik eman gainerakoek baino puntuazio txikiagoa lortu zutelako eta aurrekontu-kreditua agortu zelako. Zerrenda horretan dauden entitateak itxarote zerrendan geratuko dira, emandako dirulaguntzetakoren bati uko egingo balitzaio.

10.5. Prozedura ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita. Gehieneko epea amaituta ebazpena berariaz jakinarazi ez bada, interesatuak legitimatuta daude dirulaguntza eskaera isiltasun administratiboagatik ezetsita dagoela ulertzeko.

*11. oinarria. Enpresa onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.*

11.1. Erakunde onuradunek dirulaguntza onartzeak berarekin dakar honako hauetan ezartzen diren betekizunen pean egotea: oinarri hauek; martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gi-

cia para la determinación final del importe de la subvención, calculándose ésta como un porcentaje del coste subvencionable final de la actividad, sin que el importe final de la subvención pueda superar el inicialmente concedido.

8.3. El porcentaje e importe máximo de las subvenciones a conceder se determinará por cada una de las líneas de subvención en función del tipo de proyecto, entidad solicitante y tipo de gasto.

*Base 9.ª Órgano competente para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

9.1. El órgano instructor del procedimiento será el Servicio de Innovación.

9.2. Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión Evaluadora que tendrá en cuenta la necesidad de una representación equilibrada de ambos sexos, entendiéndose como tal, lo previsto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, sobre Igualdad de Mujeres y Hombres en su artículo 20 y en la cual participarán, al menos, las personas que ostenten los siguientes cargos o personas en las que deleguen:

— Jefe/a del Servicio de Innovación.

— Técnico/a del Servicio de Innovación.

— Funcionario/a de la Secretaría Técnica del departamento.

9.3. Dicha comisión podrá solicitar el asesoramiento y la emisión de los informes técnicos pertinentes para una adecuada valoración de las solicitudes presentadas.

*Base 10.ª Resolución de la concesión.*

10.1. La resolución sobre la concesión o, en su caso, denegación de las ayudas corresponderá al diputado foral del departamento, de conformidad con lo señalado en el Decreto Foral vigente de estructura orgánica y funcional.

10.2. La resolución de concesión o, en su caso denegación, se notificará a cada solicitante. No obstante, el órgano concedente publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa las subvenciones concedidas, según lo establecido en el artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

10.3. La entidad beneficiaria dispondrá de un plazo de 5 días naturales, a partir de la fecha de la notificación, para su aceptación, que se entenderá tácitamente aceptada si no existe comunicación expresa en contrario. Cualquier renuncia posterior, sin justificación temprana y clara será considerada como incumplimiento y podrá ser objeto de sanción.

10.4. La resolución de la concesión, además de contener la relación de las empresas a las que se concede la subvención, deberá contener una relación, por orden decreciente, de la puntuación obtenida por las empresas solicitantes, en función de los criterios de valoración establecidos, a las que, aun reuniendo las condiciones administrativas y técnicas para adquirir la condición de persona beneficiaria, no se les concedió subvención por obtener una puntuación inferior a la del resto y haberse agotado el crédito presupuestario. Estas entidades quedarán en lista de espera para el caso de que algunas de las subvenciones concedidas quedarán sin efecto por renuncia.

10.5. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución será de 6 meses, contados a partir del día siguiente al de publicación de la convocatoria. El vencimiento del plazo máximo sin haberse notificado resolución expresa legitima a las personas interesadas para entender desestimada la solicitud por silencio administrativo.

*Base 11.ª Obligaciones y compromisos de las empresas beneficiarias.*

11.1. La aceptación de las subvenciones por parte de las entidades beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en las presentes bases, en la

EK\CV GAO-I-2026-02144

puzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa; eta hura garatzeko araudia, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartua, eta dirulaguntzen alorrean aplikagarria den gainerako araudia. Bestalde, konpromiso hauek hartuko dituzte:

— 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, martxoaren 16koaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legean ezarritako irizpide nagusiak betetzea diruz lagundutako jardueretan, bereziki alderdi hauei dagokienez: hizkera eta irudiak modu ez sexistan erabiltzea eta diruz lagundutako jarduera ebaluatzeko irizpideetan genero adierazleak sartzea.

— Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egiten diren jakinarazpen, material eta dibulgazio jardueretan.

— Departamentuak dirulaguntzaren xederako ematen duen sustapen eta finantzaketari beharrezko publizitatea ematea. Horretarako, haren irudi instituzionala sartuko da, finantzaketa publikoari eta esku hartze publikoko programaren xedeari buruzko aipamenekin batera, karteletan, material inprimatuetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan eta abarretan, hedabideetan egiten diren aipamenekin batera.

11.2. Emandako dirulaguntzak ondasun inbentariagarriak erosteko erabiltzen badira, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 30.4. artikuluan ezarritakoa bete behar da.

Horrenbestez, erakunde onuradunak dirulaguntzaren xederako erabili behar du eskuratutako ondasun hori, gutxienez 5 urtetan erregistro publiko batean inskriba daitekeena bada, eta gutxienez 2 urtetan beste kasu guztietan.

11.3. Baldin eta, dirulaguntza eman eta bost urteko epean, programaren enpresa onuradunen batek bere produkzio zentroen parte esanguratsu edo garrantzitsu bat Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo lekualdatzen badu, enpresa onuradunak gertaera horren berri eman beharko dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta dirulaguntza itzularazteko arrazoi izango da hori, eta 16. oinarrian zehaztutakoari jarraituko zaio.

11.4. Programa taldearen behar eta ezaugarrietara ongi moldatzen dela ziurtatzeko, erakunde onuradunak behartuta egongo dira programaren ebaluazioan lankide izatera; horretarako, Berrikuntzako Zerbitzuak egindako galdetegia bete beharko dute.

11.5. Diruz lagungarri izateak berekin dakar lagundutako erakundeek departamentuari proiektuari buruzko informazioa ematea eta baimena ematea komunikaziorako erabil dezaten, betiere baliabide publikoen erabileraren gardentasuna sustatze aldera.

11.6. Laguntza onartzearekin, onuradunak baimena ematen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari legez dagozkion edo programaren kofinantzazioagatik aplikatu dakizkiokeen datu baseetan sartzeko dirulaguntzari buruzko informazioa.

*12. oinarria. Bateragarritasuna eta bateragarritasun-eza beste dirulaguntzekin.*

12.1. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak ez dira bateragarriak izango Gipuzkoako Foru Aldundiak, edo estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede berarekin eman ditzaketen beste edozein dirulaguntza, sarrera edo baliabideekin.

12.2. Etorkizuneko bateraezintasunak prebenitze aldera, eta, hala badagokio, dirulaguntza programa honen baliabideak

Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, su Reglamento de desarrollo (aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril) y demás normativa aplicable en materia de subvenciones, así como el compromiso de:

— Cumplir en sus actuaciones subvencionables con los principios generales establecidos en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, en especial en lo que concierne a los siguientes aspectos: uso no sexista del lenguaje y de las imágenes, e inclusión de indicadores de género en los criterios de evaluación de la actividad subvencionada.

— Garantizar el uso de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las comunicaciones, en la edición de materiales y en las actividades de divulgación que se deriven de la realización del proyecto subvencionado.

— Dar la adecuada publicidad a la promoción y financiación del departamento de los proyectos o actuaciones objeto de subvención, mediante la inclusión de su imagen institucional, así como de leyendas relativas a la financiación pública y al objeto del programa de intervención pública en carteles, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, y cualquier otro soporte o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

11.2. En el caso de que las subvenciones concedidas se destinen a la adquisición de bienes inventariables, será de aplicación lo establecido en el artículo 30.4 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

El periodo durante el cual la entidad beneficiaria deberá destinar tales bienes al fin concreto para el que se concedió la subvención no podrá ser inferior a 5 años en caso de bienes inscribibles en un registro público, ni a 2 años para el resto de bienes.

11.3. En el caso del traslado, por parte de alguna de las empresas beneficiarias del programa, de parte significativa o relevante de sus centros productivos fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco en un plazo de cinco años desde la concesión de la subvención, la empresa beneficiaria deberá comunicar dicha circunstancia a la Diputación Foral de Gipuzkoa, lo cual será causa de reintegro de la subvención y se estará a lo establecido en la base 16.ª

11.4. A fin de asegurar la mejor adaptación del programa a las necesidades y características del colectivo, las entidades beneficiarias tendrán la obligación de colaborar en la evaluación del mismo mediante la cumplimentación del cuestionario que se pudiera desarrollar por parte del Servicio de Innovación.

11.5. La aceptación de la ayuda implicará la obligación por parte de las entidades apoyadas de facilitar al departamento información relativa al proyecto y la autorización para su uso con fines de comunicación, todo ello con el objeto de impulsar la transparencia en la utilización de los recursos públicos.

11.6. La aceptación de la ayuda implicará la autorización a la Diputación Foral de Gipuzkoa para la inclusión de la información relativa a la subvención en las Bases de Datos que legalmente correspondan o que pudieran ser de aplicación por la posible cofinanciación del programa.

*Base 12.ª Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones.*

12.1. Las subvenciones objeto de las presentes bases serán incompatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de la Diputación Foral de Gipuzkoa o cualesquiera otras administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

12.2. Con el objeto de prevenir futuras incompatibilidades y estar a tiempo, en su caso, de reutilizar los recursos del pre-

EK\CV GAO-I-2026-02144

berriz erabiltzeko garaiz egoteko, ebazpena aldekoa bada, onuradunak dirulaguntza onartu beharko du 10.3 oinarrian ezarritako epean eta konpromisoekin.

Oinarri horiek ez betetzeak ekarriko du 16. oinarrian ezarritako diru itzulketak eta zehapenak aplikatzea.

*13. oinarria. Dirulaguntzen ordainketa.*

13.1. Ordainketa dirulaguntza jaso duen jarduerak gauzatzeko justifikazioa aurkeztu eta gero egingo da.

Hala ere, diruz lagundutako proiektuak hasteko aukera emango duten funtsak hornitu behar direnez, eta kontuan hartuta gaur egun zailtasun finantzario handiak daudela berehalako emaitzarik ez duten eta inbertsio handia dakarten proiektuak eta epe ertain-luzeko ekimenak gauzatzeko, ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira bermerik gabe, emandako dirulaguntzaren ehuneko 80 gainditzen ez duen zenbatekoan, betiere aurrekonturik badago, proiektu bakoitzean proiektuaren hasiera eta aurrerakinaren beharra justifikatu ondoren.

13.2. Gainerako zenbatekoa proiektua amaitzean ordainduko da, 14.3 oinarrian aurreikusitako zuriketa aurkeztu ondoren.

Hala ere, zenbateko hori osorik ordaindu daiteke proiektua edo jarduketa amaitu aurretik, dirulaguntzari dagozkion jarduketak gauzatu ahal izateko finantzazio gisa (aurretik aurrerakinaren beharra egiaztatzen bada); horretarako, Foru Aldundiaren iritziz nahikoa izango den banku abala aurkeztu beharko da, aurreratutako dirulaguntzaren zenbatekoari eta aurrerakina ematen denetik proiektua bukatu bitarteko berandutze interesei dagokiena.

13.3. Abala kitatzeko, lagundutako proiektua amaitu dela egiaztatu beharko da. Horretarako, lanen deskargu tekniko, ekonomiko eta finantzarioa aurkeztu behar dira 14.3 oinarrian aurreikusitako dokumentazioaren bidez.

13.4. Dirulaguntzen onuradunek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin zorra zatikatzeko espedienteren bat indarrean badute, dirulaguntza horiek zor horrekin konpentsatuko dira, eta, ondorioz, dirulaguntzaren zenbatekoa zorra osorik edo zati batean iraungitzen den arte aplikatuko da.

*14. oinarria. Dirulaguntzaren justifikazioa.*

14.1. Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduera gauzatu izana zuritu beharko du, baita jarduera horrek sortutako gastuak ere.

14.2. Proiektu diruz lagungarriak amaitu eta hilabeteko epean zuritu beharko dira.

14.3. Diruz lagundutako proiektua edo jarduera amaitutakoan, enpresa onuradunak zuriketa kontu zurigarri bat aurkeztu beharko du, ondorengo agiriak erantsiz:

* Memoria tekniko bat, honakoak jasoko dituena: benetan garatu diren lanak, planteatutako helburu teknikoen lorpena eta planteatutako helburuekiko desbideratzeak.

Proiektuko zereginetan parte hartzen duen pertsona bakoitzak egindako jarduerak deskribatuko dira, zeregin bakoitzari eskainitako orduak adierazita.

* Memoria ekonomikoa, jardueren kostua zuritzeko. Honako edukiak izango ditu:

— Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua identifikatuta, eta zenbatekoa, jaulkipen data eta, dagokion kasuan, ordainketa data adierazita. Dirulaguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera ematen bada, desbiderapenak ere adieraziko dira.

— Fakturak edo merkatuko trafiko juridikoan edo administrazioan pareko froga-balioa duten gainerako dokumentuak, au-

sente programa de ayudas, en el caso de que se resuelva conceder la ayuda, el beneficiario deberá aceptar la ayuda en el plazo y con los compromisos establecidos en la base 10.3.

El incumplimiento de estas bases dará lugar a la aplicación de los reintegros y sanciones establecidos en la base 16.ª

*Base 13.ª Pago de las subvenciones.*

13.1. El abono de la subvención se realizará previa presentación de la justificación de la realización de la actividad para la que se concedió.

No obstante, dada la necesidad de proveer de fondos que permitan iniciar los proyectos subvencionados, y teniendo en cuenta las dificultades financieras actuales que suponen un gran obstáculo para la materialización de proyectos e iniciativas a medio-largo plazo que no tienen resultados inmediatos y suponen una inversión importante, se podrán realizar pagos anticipados sin necesidad de garantía, por un importe que no supere el 80 por ciento de la subvención concedida. siempre que exista disponibilidad presupuestaria, previa justificación en cada proyecto del inicio del mismo y de la necesidad del anticipo.

13.2. El abono de la cantidad restante se realizará a la conclusión del proyecto previa presentación de la justificación prevista en la base 14.3.

No obstante, dicho importe podrá ser abonado en su totalidad con anterioridad a la finalización del proyecto o actuación, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención, previa justificación de la necesidad del anticipo, para lo cual deberá presentarse aval bancario o de entidad financiera suficiente a juicio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, por el importe de la ayuda anticipada y los intereses de demora correspondientes.

13.3. El aval será cancelado cuando se acredite la conclusión del proyecto con un descargo técnico, económico y financiero, mediante la presentación de la documentación justificativa prevista en la base 14.3.

13.4. En caso de que las beneficiarias de las subvenciones tengan en vigor con Diputación Foral de Gipuzkoa algún expediente de fraccionamiento de pago de deuda, las referidas subvenciones serán compensadas con dicha deuda y, en consecuencia, su importe se aplicará a la extinción total o parcial de la misma.

*Base 14.ª Justificación de la subvención.*

14.1. La entidad beneficiaria deberá justificar la realización de la actividad subvencionada, así como los gastos generados por dicha actividad.

14.2. Los proyectos objeto de subvención deberán justificarse en el plazo de un mes desde su finalización.

14.3. Tras la finalización del proyecto o actividad subvencionada, la entidad beneficiaria deberá presentar una cuenta justificativa con la siguiente documentación:

* Una memoria técnica con los trabajos realmente desarrollados, logro de objetivos técnicos planteados y posibles desviaciones respecto a los objetivos planteados.

Se describirán las actividades realizadas por cada una de las personas participantes en las diferentes fases y tareas del proyecto, con indicación de las horas dedicadas a cada una de las tareas.

* Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, que contendrá:

— Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto, se indicarán las desviaciones acaecidas.

— Las facturas o documentos de valor probatorio equivalentes en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa

rreko paragrafoan aipatutako zerrendakoak, eta, hala badagokio, ordainketa egin dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

— Langile propioen gastuak diruz lagungarriak badira, zuritzeko agiri hauek aurkeztuko dira:

≡ Ziurtagiria aurkeztuko da, proiektuan pertsona bakoitzak egotzitako orduak eta kostu erreala orduz jasotzen duena, edo, bestela, pareko froga-balioa duen beste dokumentu bat. Gastu horiek egin direla ziurtatzen dituzten dokumentuak eskatu ahal izango dira: 10T-ak, nominak, IDC-ak, ...

≡ Enpresa eskatzailearen adierazpena, xede berarentzat eskatu edo jasotako dirulaguntza, diru sarrera edo baliabideei buruzkoa, orain eskatutakoarekin bateraezinak direnak azalduz eta/edo jarduera bererako dirulaguntzarik jaso ez denaren erantzukizunpeko aitorpena.

≡ Diruz lagundu daitezkeen gastuak, 15.000 eurokoak edo gehiagokoak. Erakunde onuradunak ekipamendu-ondasunen hornidura edo aholkularitza edo laguntza teknikoko enpresek emandako zerbitzuetan adierazitako zenbatekoa edo gehiagoko gastuak egin baditu:

— Hornitzaileei eskatutako hiru eskaintzen artean egindako hautaketa egiaztatzen duen agiria, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik, non eta diruz lagundutako gastuen ezaugarri bereziei begiratuz merkatuan ondasuna hornitu edo zerbitzua emateko nahiko enpresa ez dagoen edota dirulaguntza eskatu aurretik gastua ez den egin. Hala ere, Zientziako, Teknologiako eta Berrikuntzako Euskal Sareko (ZTBES) agenteak kontratatu badira, eta zentroaren lehiakortasun teknologikoa nahiz zentroarekiko ohiko lankidetza justifikatzen badira, nahikoa izango da bi alderdi horiek azaltzen dituen deklarazioa.

— Eskaintzak efizientzia eta ekonomia irizpideen arabera hautatuko dira eta aukera horiek justifikatu egin beharko dira proposamen ekonomikorik onenak ez direnean.

14.4. Oinarri honetako aurreko atalean adierazitako agiriak aurkeztutakoan, espedientearen instruktoreak beharrezko egiaztapenak egingo ditu.

Egiaztapen horretatik ondorioztatzen bada diruz lagundu daitekeen kostua emandako dirulaguntza baino txikiagoa dela, doitu egingo da dirulaguntza. Dirulaguntza edo azken horrek xede zeukana justifikatzeko ezarritako eskakizunak erabat edo neurri batean hautsiz gero, interesdunari jakinarazi egingo zaio, egindako egiaztapenaren emaitzekin batera, eta dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdu duela adierazteko prozedura hasiko da, edo, behar izanez gero, 16. oinarrian ezarritakoaren arabera, ordaindutako zenbateko osoa edo zati bat itzultzeko prozedura.

14.5. Baliabide publikoak eraginkorki erabiltzen direla bermatzeko, departamentuak onuradunen artean informazioa bildu ahalko du, berrikuntza prozesuaren gainean eta sortutako ezagutzaren gainean, hartara berrikuntza beste esparru edo erakunde batzuetara zabal daitekeen aztertzeko.

14.6. Dirulaguntzaren entitate onuradunak gutxienez 4 urtez gorde beharko ditu nahitaez laguntza ematea bultzatu zuen jarduera burutu izanaren eta jasotako fondoak aplikatu izanaren egiaztagiriak. Epe hori kontatzen hasiko da enpresa onuradunak aipatu ziurtagiriak aurkezteko ezarrita dagoen denbora amaitzen denetik aurrera.

Proiektuaren edo enpresaren ezaugarriengatik beharrezkoa denean, departamentuak onuradunei eska diezaieke proiektuarekin lotutako transakzio guztiak bereizita erregistratzeko auke-

incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior y, en su caso, la documentación acreditativa del pago.

— En el caso de que sean subvencionables los gastos de personal propio, para la justificación de los mismos, deberá aportarse:

≡ Certificado en el que se detallen las horas dedicadas por cada persona al proyecto y el coste real horario de la persona para la entidad o documento de valor probatorio equivalente. Se podrán solicitar los documentos justificativos de estos gastos: 10Ts, nóminas, IDCs, ...

≡ Una declaración de las subvenciones, ingresos o recursos que la empresa solicitante hubiese solicitado u obtenido para la misma finalidad, indicando las subvenciones que resulten incompatibles con la solicitada y/o una declaración de que la empresa no ha recibido ningún tipo de subvención para la financiación de la actuación subvencionada.

≡ Gastos subvencionables por importe igual o superior a 15.000 euros. En el supuesto de haber incurrido la entidad beneficiaria en gastos por importe igual o superior al indicado en suministros de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica:

— Documentación acreditativa de la elección realizada entre las tres ofertas solicitadas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención. No obstante, en el caso de contrataciones realizadas a los agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación (RVCTI), siempre que se demuestre la competencia tecnológica del centro y una habitualidad en la colaboración con el mismo, será suficiente con una declaración en la que se manifiesten estos aspectos.

— La elección entre las ofertas presentadas deberá realizarse conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

14.4. Una vez presentada la documentación señalada en el apartado anterior de esta base, se realizará por el órgano instructor del expediente la correspondiente comprobación.

Si como resultado de dicha comprobación se dedujera que el coste subvencionable ha sido inferior a la subvención concedida, se reajustará la misma. En el caso de incumplimiento total o parcial de los requisitos establecidos para la justificación de la subvención o los fines para los que fue concedida la misma, se comunicará tal circunstancia a la persona interesada junto a los resultados de la comprobación realizada y se iniciará el procedimiento para declarar la pérdida del derecho de cobro de la ayuda o, en su caso, el procedimiento de reintegro total o parcial previsto en la base 16.ª

14.5. A fin de asegurar la eficacia en la utilización de los recursos públicos, el departamento podrá recabar de las entidades beneficiarias información sobre el proceso de innovación seguido y conocimiento generado que pudiera ser de interés para la extensión de la innovación en otras áreas o entidades.

14.6. La entidad beneficiaria de la subvención está obligada a conservar, durante un plazo de 4 años los justificantes de la realización de la actividad que fundamenta la concesión de la subvención, así como la aplicación de los fondos percibidos. El citado plazo computará a partir del momento en que finalice el periodo establecido para presentar la citada justificación por parte de la entidad beneficiaria.

Si las características del proyecto o la empresa así lo requiriesen, el departamento podrá requerir de los beneficiarios el mantenimiento de un sistema de contabilidad que permita el re-

EK\CV GAO-I-2026-02144

ra ematen duen kontabilitate sistema mantentzea, horretarako kontabilitate kode espezifiko bat erabiliz.

Proiektua justifikatu eta zerga ekitaldia bukatu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak dokumentazio osagarria eska dezake proiektuaren kostua berresteko.

14.7. Dirulaguntza justifikatzeko ezarritako epea amaitu eta ez badira hirugarren atalean aipatutako agiriak aurkeztu, organo eskudunak 15 eguneko epea eman ahalko dio onuradunari agiri horiek aurkezteko. Beste epe horretan ez bada eskatutako dokumentazioa aurkezten, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko da eta hasiera emango zaio jasotakoa itzultzeko 16. oinarrian aurreikusten den prozedurari.

*15. oinarria. Ebazpena aldatzea.*

15.1. Diruz lagundutako jarduera burutzeko epea amaitu baino bi hilabete lehenago, enpresa onuradunek eskatu ahal izango diote organo emaileari aldaketak egin ditzala ebazpenean: hain zuzen ere, zehaztutako epeak zabaltzea, emandako diru kopurua murriztea edo jardueran jasotako ekintzak aldatzea dakarten aldaketak. Aldaketa horiek onartuko dira aurreikusi gabeko gorabeherek eragindakoak badira edo jarduera ondo amaitzeko beharrezkoak badira, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32. artikuluak zehazten duenari jarraituz. Ez da eskaerarik aurkeztu beharko jardueraren aurrekontuko balioespen izaera duten kontzeptuetan aldaketak egiteko.

15.2. Organo emaileak ofizioz aldatu ahal izango du dirulaguntza emateko ebazpena, interesdunari entzunaldia eskaini ondoren eta fondoak aplikatu aurretik, betiere, dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzearen ondorioz lortu nahi zen interes publikoa erdiestea galarazten edo zailtzen bada eta onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

15.3. Enpresa onuradunak egindako justifikazioan adierazten badu dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan aldaketak izan direla eta aldaketa horiek, adierazitakoaren arabera, ebazpenaren aldaketa eragin zezaketela eta ez zela bete aldaketa hori onartua izateko aldez aurreko baimen administratiboaren tramitea; kasu horretan, dirulaguntza ematen duen organoak onartu ahal izango du aurkeztutako justifikazioa, baldin eta onarpen horrek hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez baditu.

*16. oinarria. Ez betetzeak eta itzulketak.*

16.1. Oinarri hauetan, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritako edozein betebehar ez badu betetzen, onuradunak dirulaguntza hartzeko eskubidea osorik edo zati batean galdu duela deklaratuko da, eta hartutako dirua osorik edo zati batean itzuli beharko du, dagozkion berandutze interesekin batera, aipatu foru arauak 35. artikuluan xedatutakoaren arabera; eta bere 49. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoari jarraituz, hortik erator daitekeen erantzukizuna eskatuko zaio.

16.2. Ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira, eta instruktoreak balioetsiko ditu proiektu osoarekiko eta jasotako zenbatekoekiko egindako lanak kontuan hartuta.

16.3. Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauari jarraituz, aurreikusitakoaren arabera, diruz lagundutako proiektua ez bada egiten edo zati batean bakarrik egiten bada, eta departamentuari ez bazaio hori zuritzeko jakinarazpenik egiten, zigor prozedura hasi ahal izango da proportzionaltasun irizpideak erabiliz, kontuan hartuta proiektu osotik egindako lanak eta jasotako zenbatekoak.

gistro diferenciado de todas las transacciones relacionadas con el proyecto mediante la utilización de un código contable específico dedicado a tal efecto.

Con posterioridad a la justificación del proyecto, y una vez cerrado el ejercicio fiscal, la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá solicitar documentación adicional para corroborar el coste del proyecto.

14.7. Transcurrido el plazo establecido para la justificación de la subvención sin que se hubiese presentado la documentación a que se refiere el apartado tercero, el órgano competente podrá requerir a la entidad beneficiaria para que en el plazo de 15 días aporte la misma. La falta de presentación de la justificación, transcurrido este nuevo plazo, llevará aparejada la pérdida del derecho de cobro de la subvención o el inicio del procedimiento de reintegro previsto en la base 16.ª

*Base 15.ª Modificación de la resolución.*

15.1. Las empresas beneficiarias podrán solicitar del órgano concedente, hasta dos meses antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se dañen derechos de terceros, de acuerdo con lo establecido en el artículo 32 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. No se requerirá presentar solicitud por alteraciones en los conceptos del presupuesto de la actividad que tengan carácter estimativo.

15.2. El órgano concedente podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la entidad interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido y no se irroguen perjuicios económicos a la beneficiaria.

15.3. Cuando la empresa beneficiaria de la subvención ponga de manifiesto en la justificación que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución conforme a lo indicado habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente de la subvención podrá aceptar la justificación presentada, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceras personas.

*Base 16.ª Incumplimientos y reintegros.*

16.1. El incumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos en estas bases, en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, y demás normativa aplicable, dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la subvención y a la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente y al pago de los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en el artículo 35 de la citada norma foral, y a las responsabilidades que de ello pudieran derivarse, según lo dispuesto en su artículo 49 y siguientes.

16.2. Para graduar los incumplimientos se utilizarán criterios de proporcionalidad, que serán estimados por el órgano instructor en función de los trabajos realizados respecto a la totalidad del proyecto y a los importes percibidos.

16.3. Conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, la no ejecución o ejecución parcial, de acuerdo con lo previsto, del proyecto subvencionado, sin comunicación justificativa al departamento, podrá dar lugar al inicio de un procedimiento sancionador en el que se utilizarán criterios de proporcionalidad en función de los trabajos realizados respecto a la totalidad del proyecto y a los importes percibidos.

EK\CV GAO-I-2026-02144

16.4. Borondatezko itzulketatzat jotzen da onuradunak dirulaguntza ematen duen organoak eskatu gabe egiten duena.

Itzultzeko prozedura hasteko, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko foru diputatuari, eta bertan, datu hauek sartu behar ditu, nolanahi ere:

— Entitatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

— Ordezkariaren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

— Borondatezko itzulketa egiteko arrazoien azalpena.

— Tokia eta data.

— Sinadura.

Eskaera hori jaso ondoren, Berrikuntzako Zerbitzuak ordainketa gutuna bidaliko dio, itzultzeko zenbatekoa eta dagozkion berandutza interesak adieraziz.

*17. oinarria. Erregimen juridikoa.*

Oinarri hauetan ezarritakoaz gain, dirulaguntza hauei honakoa aplikatuko zaie: Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua; hori garatzeko Erregelamendua (apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartu zuena); eta dirulaguntzen gaian aplikagarria den gainerako araudia.

Oinarri espezifikoek zehaztuko dute, laguntza kategoriaren arabera, Europako zein araudiren mende egongo diren.

II. ERANSKINA

*«BerriTEK+ produktu» dirulaguntza lerroaren oinarri bereziak.*

*1. oinarria. Objektua.*

Laguntza-lerro honen helburua berrikuntza teknologikoa dakarten produktu eta zerbitzu berrien garapena bultzatzea da. Ildo honi dagokionez, produktu eta zerbitzu berri edo hobetuen garapena izango da, erakunde eskatzaileak aurretik eskainitakoetatik nabarmen ezberdinak direnak.

Merkatu-potentzial argia duten produktuak edo zerbitzuak sortzen dituzten proiektuak soilik lagunduko dira, baldin eta horiek integratzeko, errendimendu funtzionala edo teknologikoa nabarmen hobetzeko edo erakunde eskatzailearen eskaintzarekiko jauzi kualitatiboa dakarten berrikuntzak sartzeko gai badira.

Lerroak bi jarduera-mota osagarri ditu:

A mota: produktu edo zerbitzu berritzaileetan teknologia aurreratuak ezartzea eta baliozkotzea, merkatuan hedatzeko.

B mota: ETEetan berrikuntza teknologikoa laguntzeko zerbitzu aurreratuak, enpresa txiki eta ertainei produktu edo zerbitzu berritzaileak diseinatzen eta garatzen laguntzeko.

A motako proiektuak Europar Batasunak garapen esperimentaleko kategoria gisa definitutako kategorian sartzen dira.

*2. oinarria. Entitate onuradunak.*

2.1. Enpresa onuradunak: jarduera Gipuzkoan garatzen duten enpresak, betiere lagundu beharreko proiektuaren emaitza instalazio horietan zuzenean aplikatzekoa bada. Gainera, B motako proiektuetan, erakunde onuradunak ETEak izan behar dira.

16.4. Se entiende por devolución voluntaria aquella que es realizada por el beneficiario sin el previo requerimiento del órgano que concede la subvención.

El procedimiento de devolución se iniciará mediante escrito dirigido al diputado foral del Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos, en el que deberá incluir, en todo caso:

— Nombre de la entidad y número de identificación fiscal.

— Nombre y apellidos del representante y número de identificación fiscal.

— Exposición de los motivos por lo que se procede a la devolución voluntaria.

— Lugar y fecha.

— Firma.

Recibido el citado escrito, el departamento le enviará la carta de pago con la cantidad a reintegrar y la cantidad que corresponda en concepto de intereses de demora.

*Base 17.ª Régimen jurídico.*

Las subvenciones objeto de las presentes bases reguladoras se regirán, además de por lo dispuesto en las mismas, por la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, su reglamento de desarrollo aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril, y demás normativa aplicable en materia de subvenciones.

Las bases específicas, en función de la categoría de ayuda de que se trate, definirán la normativa europea a la que se sujetarán las mismas.

ANEXO II

*Bases específicas de la línea de subvención «BerriTEK+ producto».*

*Base 1.ª Objeto.*

La presente línea de ayudas tiene por objeto impulsar el desarrollo de nuevos productos y servicios que comporten innovación tecnológica, que a efectos de esta línea se será entendida como el desarrollo de productos y servicios, nuevos o mejorados, que difieren significativamente de los anteriormente ofrecidos por la entidad solicitante.

Se apoyarán exclusivamente aquellos proyectos que den lugar a productos o servicios con un claro potencial de mercado, capaces de integrar, de mejorar sustancialmente su rendimiento funcional o tecnológico, o de incorporar innovaciones que supongan un salto cualitativo respecto a la oferta existente de la entidad solicitante.

La línea se estructura en dos tipos de actuación complementarias:

Tipo A: implementación y validación de tecnologías avanzadas en productos o servicios innovadores para su despliegue en el mercado.

Tipo B: Servicios avanzados de apoyo a la innovación tecnológica en PYMEs, orientada a acompañar a las pequeñas y medianas empresas en el diseño y desarrollo de productos o servicios innovadores.

Los proyectos de tipo A se incluyen dentro de la categoría definida por la Unión Europea como de desarrollo experimental.

*Base 2.ª Entidades beneficiarias.*

2.1. Serán empresas beneficiarias: las empresas que desarrollan su actividad en Gipuzkoa, siempre que el resultado del proyecto a apoyar sea de aplicación directa a estas instalaciones. Además, es requisito en los proyectos del tipo B que las entidades beneficiarias sean PYMEs.

EK\CV GAO-I-2026-02144

2.2. Lehentasuna izango dute aurreko enpresen ekoizpen-prozesuari lotutako industria-jarduerak, erauztekoak, eraldatzekoak, ekoizpenekoak, zerbitzu teknikoetakoak, informazioaren gizartearen edo komunikazioen eremukoak. Baldintza hori enpresaren jarduera nagusiaren EJZn (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga) alta emandako epigrafetik aurrera egiaztatuko da.

Epigrafe onargarrien zerrenda eskuragarri dago programaren informazioaren artean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzen orrian.

Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, plataforma korporatiboen bidez, bitartekotza-plataformen bidez (Nisae, Euskadiko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-nodoa) edo sarbide publikoko plataformen bidez, alta egoeran dauden JEZren epigrafeetako datuak egiaztatuko ditu.

Egiaztapen automatikoaren aurka daudela adierazi ahal izango dute eskabidean; kasu horretan, Ogasuneko administrazio-instantziak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

2.3. Ezingo dira onuradun izan Europar Batasuneko Batzordeak dirulaguntza legez kontrakoa dela eta merkatu bateratuarekin bateraezina dela aldez aurretik erabaki ondoren, laguntzak berreskuratzeko agindupean dauden enpresak; ezta krisian dauden enpresak ere.

2.4. Dirulaguntza hauetara enpresek bakarka edo entitate talde batek bultzatuta A motako proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte. Lankidetza proiektuetan, entitate batek lidergoa hartuko du eta taldekideen lider gisa arituko da. Elkarlan proiektuen kasuan, proiektuan parte hartzen duen enpresa multzotik, Gipuzkoako enpresei dagokien parteak bakarrik jasoko du dirulaguntza.

*3. oinarria. Proiektuaren baldintzak.*

3.1. Diruz lagunduko dira produktuei edo zerbitzuei aplikatutako teknologia aurreratuak garatzera eta hartzera bideratutako proiektuak, baldin eta osagai berritzaile eta teknologiko argia badute eta heldutasun teknologiko handia badute. Proiektuek nabarmen lagundu beharko dute enpresaren lehiakortasuna hobetzen, ingurune errealean erabat inplementatu ez diren berrikuntzak txertatuz.

Lerroak bi jarduera-arlo osagarritan egituratzen da, baldintza hauekin:

* A. mota. Teknologia aurreratuak garatzea, inplementatzea eta baliozkotzea. Teknologiak garapen-fase aurreratuetan integratzera bideratutako proiektuak, oraindik enpresaren produtktuan edo zerbitzuan ezarri ez direnak. Honako hauek sartzen dira:

— Produktu edo zerbitzuak sortzea edo nabarmen hobetzea ahalbidetzen duten teknologiak ezartzea.

— Erakusketa-jarduerak, prototipo pilotuak egitea, funtzionamendu-baldintza errealetan saiakuntzak egitea eta soluzio teknologikoak baliozkotzea.

— Produktuaren edo zerbitzuaren bideragarritasun teknikoa eta komertziala bermatzeko beharrezko ziurtagiriak eta homologazioak.

Proiektuen helburua teknologia aurreratuak aplikatzea izango da, besteak beste, adimen artifiziala, konektibitate adimenduna, gauzen interneta, robotika aurreratua, teknologia murgiltzailea... Hainbat arlotara bideratutako ekimenak aurkeztu ahal izango dira, hala nola 4.0 produktuen garapena eta merkatuan benetako eragina duten zerbitzu adimendunak, produktu eta zerbitzu aurreratu, iraunkor eta lehiakorrak eskainiz.

2.2. Tendrán prioridad los proyectos que desarrollen actividades industriales, extractivas, transformadoras, productivas, de servicios técnicos ligados al proceso productivo de las anteriores, del ámbito de la sociedad de la información o las comunicaciones. Este requisito será comprobado a partir del epígrafe en el alta en el IAE (Impuesto de Actividades Económicas) de la actividad principal de la empresa.

La relación de epígrafes admisibles está disponible entre la información del programa, en la página de subvenciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos verificará, a través de plataformas corporativas, de intermediación (Nisae, nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi) o de acceso público, los datos de los epígrafes del IAE en situación de alta.

Podrán manifestar en la solicitud su oposición expresa a la verificación automática, en cuyo caso deberán aportar la correspondiente certificación expedida por la instancia administrativa de Hacienda.

2.3. Quedan excluidas como beneficiarias las empresas que estén sujetas a una orden de recuperación pendiente tras una decisión previa de la Comisión de la Unión Europea que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado común, así como las empresas en crisis.

2.4. A estas subvenciones podrán presentarse proyectos del tipo A impulsados por empresas de manera individual o por un conjunto de entidades, en cuyo caso una ejercerá de líder de todas ellas. En el caso de proyectos en cooperación del conjunto de empresas que participen en el proyecto únicamente serán objeto de subvención la parte correspondiente a las empresas de Gipuzkoa.

*Base 3.ª Requisitos del proyecto.*

3.1. Se considerarán subvencionables los proyectos orientados al desarrollo y adopción de tecnologías avanzadas aplicadas a productos o servicios con un claro componente innovador y tecnológico, y con grado alto de madurez tecnológica. Los proyectos deberán contribuir de forma significativa a mejorar la competitividad de la empresa mediante la introducción de innovaciones que aún no hayan sido plenamente implementadas en su entorno real.

La línea se articula en dos tipos de actuación complementarias, con los siguientes requisitos:

* Tipo A. Desarrollo, implementación y validación de tecnologías avanzadas. Proyectos orientados a la integración de tecnologías en fases avanzadas de desarrollo, aún no implantadas en producto o servicio en la enpresa. Se incluyen:

— Implantación de tecnologías que permitan la creación o mejora sustancial de productos o servicios.

— Actividades de demostración, elaboración de prototipos piloto, ensayos en condiciones reales de funcionamiento y validación operativa de soluciones tecnológicas.

— Certificaciones y homologaciones necesarias para garantizar la viabilidad técnica y comercial del producto o servicio.

Los proyectos deberán tener como finalidad la aplicación de tecnologías avanzadas, entre otras, la inteligencia artificial, la conectividad inteligente, internet de las cosas, robotica avanzada, tecnología inmersiva... Podrán presentarse iniciativas orientadas a ámbitos como el desarrollo de productos 4.0 y servicios inteligentes que tengan impacto real en el mercado ofreciendo productos y servicios avanzados, sostenibles y competitivos.

EK\CV GAO-I-2026-02144

* B mota. ETEen berrikuntza teknologikorako zerbitzu aurreratuak. ETEek eraldaketa teknologikoa planifikatzeko eta bultzatzeko dituzten gaitasunak indartzeko proiektuak. Honako hauek sartzen dira:

— Bide eta ibilbide-orri teknologikoak diagnostikatzeko, aztertzeko eta definitzeko zerbitzuak, produktuan edo zerbitzuan berrikuntza-aukerak identifikatzeko.

*4. oinarria. Dirulaguntzaren xede diren jarduerak eta diruz lagundu daitezkeen gastuak.*

4.1. Erakundeek proiektu bakarra aurkeztu ahal izango dute jarduera-mota bakoitzeko. Proiektu bat baino gehiago aurkezten baditu, lehenik aurkeztutakoa bakarrik hartuko du kontuan prozeduraren organo izapidegileak.

4.2. Diruz lagundu daitezkeen gastuak: Erakunde eskatzaileak aurkezten duen jardueraren aurrekontu banakatu eta xehatuan jasota dauden gastuak, zalantzarik gabe jardueraren garapenari lotuta daudenak eta ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 25.3 artikuluan ezarrita daudenak, zehazki, honako hauen zuzeneko gastuak:

* A motako proiektuetan:

— Barruko langilerai gastuak;

— Instrumentala eta material, proiekturako erabiltzen diren neurrian eta aldian;

— Patenteak;

— Eta azpikontratazioak.

* B motako proiektuetan:

— Azpikontratazioak.

4.3. Langileria gastuen kasuan:

— Barruko langileak badira, enpresarentzako kostu erreala hartuko da hautagarritzat. Barruko langileen gehieneko kostu hautagarria deialdi bakoitzean zehaztu daiteke. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak (aurrerantzean, departamentua) uste badu proposatutako ordu-dedikazioa gehiegizkoa dela, muga bat ezarri ahal izango du, enpresaren langile kopuru osoaren eta kasuan kasuko proiektu motaren arabera.

— Kanpoko langileen gehieneko kostu hautagarria deialdi bakoitzean zehaztu daiteke.

4.4. Zeharkako gastu hautagarritzat hartuko dira, deialdi bakoitzak ezartzen dituen baldintzetan, eta gehienez ere % 20ko ehunekoa aplikatuko zaie langile propioen zuzeneko gastuei.

Ez da beharrezkoa izango justifikazio dokumental indibidualizaturik aurkeztea kontzeptu bakoitzeko. Gastu horien barruan sartuko dira proiektua gauzatzearekin lotutako erakundearen egitura- eta administrazio-kostu orokorrak.

4.5. Onuradunari lotutako pertsonei edo entitateei dagozkien gastuak ez dira diruz lagunduko, salbu eta:

— Enpresari lotutako enpresako I+G unitatea bada, edo

— Merkatuko baldintza arrunten arabera egiten bada; eta aldez aurretik departamentuaren baimena eskuratu bada.

4.6. Ez dira lagunduko:

— Eremu teknologiko espezifikoekin erlazionatuta dauden proiektuak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren beste programa batzuk sustatzen dituztelako. Salbuespenak deialdi bakoitzean zehaztuko dira.

— Proiektuen bigarren faseak edo zerbitzuen bertsio hobetuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak jada sustatuta daudenak.

— Prozesuen kalitatea hobetzeko ohiko ahaleginak, lehendik dagoen ekoizpen-prozesu bat bezero batek ezarritako baldintza es-

* Tipo B. Servicios avanzados para la innovación tecnológica de las PYMEs. Proyectos dirigidos a reforzar las capacidades de las pymes para planificar e impulsar su transformación tecnológica. Se incluyen:

— Servicios de diagnóstico, análisis y definición de itinerarios y hojas de ruta tecnológicas que permitan identificar oportunidades de innovación en producto o servicio.

*Base 4.ª Actuaciones objeto de subvención y gastos susceptibles de apoyo.*

4.1. Las entidades sólo podrán presentar un único proyecto por cada tipo de actuación. En caso de presentar más de una solicitud, el órgano instructor del procedimiento únicamente considerará la presentada en primer lugar.

4.2. Gastos subvencionables: aquellos gastos que figurando recogidos en el presupuesto desglosado y detallado de la actividad que presente la entidad solicitante, estén vinculados de manera indubitada al desarrollo de la misma y estén establecidos en el artículo 25.3 del Reglamento (UE) n.º 651/2014, de 17 de junio, específicamente los gastos directos de:

* En proyectos tipo A:

— Personal interno;

— Instrumental y material, en la medida y durante el periodo en que se utilicen para el proyecto;

— Patentes;

— Y las subcontrataciones.

* En proyectos tipo B:

— Las subcontrataciones.

4.3. En el caso de los gastos del personal:

— Para el personal interno, se considerará elegible el coste real para la empresa, hasta el valor máximo que pueda fijarse en cada convocatoria. En aquellos casos en que el Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos (en adelante, «el departamento») estime que la dedicación horaria propuesta es elevada, podrá establecer un límite en función de la plantilla total de la empresa y del tipo de proyecto.

— Si se trata de personal externo se considerarán elegibles hasta un valor máximo que se podrá limitar en cada convocatoria.

4.4. Se considerarán gastos indirectos elegibles, en los términos que establezca cada convocatoria, aplicando como máximo el porcentaje del 20 % sobre los gastos directos de personal propio.

No será necesaria la presentación de justificación documental individualizada por cada concepto. Estos gastos comprenderán los costes generales de estructura y administración de la entidad relacionados con la ejecución del proyecto.

4.5. No serán gastos subvencionables aquellos correspondientes a personas o entidades vinculadas con la beneficiaria, salvo que:

— Se trate de la Unidad de I+D empresarial vinculada a la empresa o

— Se realice de acuerdo con las condiciones normales de mercado; y se obtenga la previa autorización del departamento.

4.6. No serán subvencionables:

— Proyectos relacionados con ámbitos tecnológicos específicos apoyados por otros programas de la Diputación Foral de Gipuzkoa; estas exclusiones se concretarán en cada convocatoria.

— Segundas fases de proyectos o versiones mejoradas de procesos ya apoyados por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Los esfuerzos rutinarios para mejorar la calidad de procesos, la adaptación de un proceso de producción ya existente a

EK\CV GAO-I-2026-02144

pezifikoetara egokitzea, aldian behingo edo sasoiko aldaketak, produktuetan edo zerbitzuetan, ekoizpen-lerroetan, fabrikazio-prozesuetan, zerbitzuetan eta abian dauden beste eragiketa batzuetan egindako ohiko edo aldizkako aldaketak, nahiz eta aldaketa horiek hobekuntzak ekar ditzaketen.

— Ekoizpen-jardueraren plangintza; produkzioaren prestaketa eta hasiera; berrikuntza-jardueren eraginpean ez dauden instalazioak, makinak, ekipoak eta produkzio-sistemak sartzea edo aldatzea; etendako produkzio-prozesuen arazo teknikoak konpontzea; kalitate-kontrola eta produktuen eta prozesuen normalizazioa; gizarte-zientzien eta merkatu-azterketen arloko prospekzioa; merkaturatzeko sareak edo instalazioak ezartzea; langileak trebatzea eta prestatzea.

— Bidaiei eta mantenuari dagozkien gastuak.

— Fakturan jasanarazitako Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

*5. oinarria. Dirulaguntzen portzentajea eta gehieneko zenbatekoa.*

5.1. A motan, ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduaren (EB) 25.5 artikuluaren arabera, laguntzaren intentsitatea ez da izango diruz lagundu daitekeen kostuaren % 25 baino gehiagokoa.

5.2. A motan, laguntzen intentsitatea handitu ahalko da, gehienez ere diruz lagundu daitezkeen gastuen % 60ra arte, ondorengo eran:

a) % 10, enpresa ertainen kasuan, eta % 20 enpresa txikien kasuan;

b) % 15, baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

i) Proiektuak berarekin ekartzea lankidetza eraginkor bat:

— Enpresen artean, horietako bat, gutxienez, ETE bat izanik, edo lankidetza hori, gutxienez, Europar Batasuneko bi estatutan gauzaturik, edota estatu batean eta EEEko Akordioko alderdi kontratatzaile batean, eta ezein enpresaren kontura bakarrik ez izatea diruz laguntzekoak diren kostuen % 70 baino gehiago, edo

— Enpresa baten eta ikerketako nahiz ezagutzaren zabalkundeko erakunde baten edo batzuen artean, azkeneko horiek bereganaturik diruz laguntzekoak diren kostuen % 10, gutxienez, eta eskubidea izanik beren ikerlanaren emaitzak argitaratzeko,

ii) Proiektuaren emaitzak hedatzea, hainbat bitarteko erabiliz, hala nola hitzaldiak, argitalpenak, irispide libreko oinarriak, eta programa informatiko doakoak edo iturri irekikoak.

5.3. A motan, banakako proiektuen kasuan, gehieneko dirulaguntza 60.000 € izango da eta 70.000 € lankidetza proiektuetarako.

5.4. B. motan, ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduaren (EB) 28.3 artikuluaren arabera, laguntzaren intentsitatea ez da izango diruz lagundu daitekeen kostuaren % 50 baino gehiagokoa. Intentsitate hori handitu ahal izango da, ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduan (EB) 28.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, % 100eraino, baldin eta zerbitzu horietarako laguntzen zenbateko osoa ez bada 200.000 € baino handiagoa enpresa bakoitzeko, hiru urteko edozein alditan.

5.5. B. motan, banakako proiektuen kasuan, gehieneko dirulaguntza 20.000 € izango da.

*6. oinarria. Balorazio irizpideak.*

6.1. Eskaerei 100 puntuko balorazioa emango zaie gehienez ere, ezarritako irizpide hauen arabera:

* Proposamenaren balioa eta bikaintasuna: gehienez 40 puntu. Atal hau baloratzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

los requisitos específicos impuestos por un cliente, los cambios periódicos o de temporada, las modificaciones habituales o periódicas efectuadas en productos, líneas de producción, procesos de fabricación, servicios y otras operaciones en curso, aun cuando estas modificaciones puedan representar mejoras de estos.

— La planificación de la actividad productiva; la preparación y el inicio de la producción; la incorporación o modificación de instalaciones, máquinas, equipos y sistemas para la producción que no estén afectados a actividades de innovación; la solución de problemas técnicos de procesos productivos interrumpidos; el control de calidad y la normalización de productos y procesos; la prospección en materia de ciencias sociales y estudios de mercado; el establecimiento de redes o instalaciones para la comercialización; el adiestramiento y la formación del personal.

— Gastos relativos a viajes y manutención.

— El Impuesto sobre el Valor Añadido repercutido en factura.

*Base 5.ª Porcentaje y cuantía máxima de subvención.*

5.1. En el tipo A, de acuerdo con el artículo 25.5 del Reglamento (UE) n.º 651/2014, de 17 de junio, la intensidad de la ayuda no excederá del 25 % del coste subvencionable.

5.2. En el tipo A, las intensidades de ayuda podrán aumentarse hasta un máximo del 60 % de los costes subvencionables, como se indica a continuación:

a) En 10 puntos porcentuales en el caso de las medianas empresas y en 20 puntos porcentuales en el caso de las pequeñas empresas;

b) en 15 puntos porcentuales si se cumple alguna de las siguientes condiciones:

i) Que el proyecto implique una colaboración efectiva:

— Entre empresas, al menos una de las cuales sea una PYME, o se desarrolle en al menos dos Estados miembros, o en un Estado miembro y en una Parte Contratante en el Acuerdo EEE, y que ninguna empresa corra por sí sola con más del 70 % de los costes subvencionables, o

— Entre una empresa y uno o varios organismos de investigación y difusión de conocimientos, asumiendo estos como mínimo el 10 % de los costes subvencionables y teniendo derecho a publicar los resultados de su propia investigación,

ii) Que los resultados del proyecto se difundan ampliamente por medio de conferencias, publicaciones, bases de libre acceso o programas informáticos gratuitos o de fuente abierta.

5.3. En el tipo A la subvención máxima para los proyectos individuales será de 60.000 € y de 70.000 € para los proyectos en cooperación.

5.4. En el tipo B, de acuerdo con el artículo 28.3 del Reglamento (UE) n.º 651/2014, de 17 de junio, la intensidad de la ayuda no excederá del 50 % del coste subvencionable. Está intensidad podrá incrementarse tal y como se establece en el artículo 28.4 del Reglamento (UE) n.º 651/2014, de 17 de junio hasta el 100 % a condición de que el importe total de las ayudas para estos servicios no sea superior a 200.000 € por empresa en cualquier periodo de tres años.

5.5. En el tipo B la subvención máxima para los proyectos individuales será de 20.000 €.

*Base 6.ª Criterios de valoración.*

6.1. Las solicitudes serán valoradas hasta un total de 100 puntos, conforme a los siguientes criterios:

* Valor y excelencia de la propuesta: hasta 40 puntos. Para la valoración de este apartado se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

EK\CV GAO-I-2026-02144

— Deialdiaren helburuekin eta funtsezko teknologiekin bat etortzea (gehienez 10 puntu). Proiektua deialdiaren helburuetara zenbateraino egokitzen den, eta 3. Oinarrian, 3.1 puntuan identifikatutako teknologia estrategikoekin duen lotura.

— Berrikuntza eta garapen-maila (gehienez 20 puntu). Proiektuaren berrikuntza-maila, honako hauek kontuan hartuta: produktu edo zerbitzuen garapenean egiten den aurrerapen esanguratsua, proposatutako soluzioaren irismena, eta merkatuaren aukera edo jorratzen duen beharra.

— Bideragarritasun teknikoa (gehienez 10 puntu). Proiektuaren helburuak lortzeko proposatutako metodoen eta tekniken egokitasuna.

* Inplementazioaren kalitatea eta eraginkortasuna: Gehienez 25 puntu. Atal hau baloratzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

— Proiektuaren argitasuna, zehaztasuna eta koherentzia (gehienez 5 puntu). Zehaztasuna proiektuaren deskribapenean, lanplanean, jarraipen-adierazleen sendotasunean eta arriskuen kudeaketan.

— Lantaldearen gaitasunak eta kudeaketa-egitura (gehienez 10 puntu). Lantaldearen esperientzia eta gaitasunak, kudeaketa-egituraren egokitzapena eta rolen banaketa. Kontuan hartuko da emakumeak taldean integratzea aniztasunaren eta ekitatearen funtsezko faktore gisa.

— Eraginkortasuna baliabideak erabiltzean (gehienez 10 puntu). Aurrekontuaren egokitzapena eta justifikazioa, baita proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko finantza-baliabideen eta baliabide materialen esleipenaren eraginkortasuna ere.

* Erakundearen profila, trakzio-gaitasuna eta proiektuaren emaitzen eragina: gehienez 35 puntu. Atal hau baloratzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

— Erakundearen profila eta trakzio-ahalmena (gehienez 10 puntu). Erakundeak proiektua aurrera eramateko duen gaitasuna, enpresaren tamaina, jarduera eta berrikuntzaren sustapenean egindako ibilbidearen arabera baloratua.

— Enpresa-estrategia inklusiboak: genero-berdintasuna eta euskara sustatzea (gehienez 10 puntu). Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen duten eta beren jardueran euskararen erabilera sustatzen duten neurriak eta ekintzak integratzea.

— Proiektuaren emaitzen eragina (gehienez 15 puntu). Proiektuaren potentziala enpresaren lehiakortasuna hobetzeko, balio erantsia, errentagarritasuna eta enplegua sortzeko, gizartean eragin positiboa sortzeko eta ingurumenaren iraunkortasunari laguntzeko.

6.2. Lankidetza-proiektuen kasuan, enpresa bakoitza bereizita baloratuko da, eta, ondoren, bere ahalegin ekonomikoaren arabera haztatuko da puntuazioa, eta puntuazio bera emango zaie bi enpresei, bi eskaerak batera tratatuz une horretatik aurrera. Era berean, enpresa bakoitzari emandako dirulaguntza kopururaren kalkulua egiteko, ahalegin ekonomiko horren arabera haztatuko da.

6.3. Ez zaie laguntzarik emango gehieneko puntuazioaren % 50 baino gutxiago lortzen duten proiektuei.

6.4. Balorazio-irizpideak aplikatu ondoren hainbat eskabideren guztizko puntuazioan berdinketa gertatzen bada, berdinketa hausteko, proposamenaren balio- eta bikaintasun-irizpidean lortutako puntuazio handiena hartuko da kontuan.

*7. oinarria. Araubide juridikoa.*

7.1. Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak arautzeko kontuan hartuko dira martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoan, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako araudian, eta dirulaguntzen alorreko gainerako araudi aplikagarrietan ezarritakoa.

— Alineación con los objetivos de la convocatoria y tecnologías clave (hasta 10 puntos). Grado de adecuación del proyecto a los objetivos de la convocatoria, así como su relación con las tecnologías estratégicas identificadas en la Base 3.ª, 3.1.

— Innovación y grado de desarrollo (hasta 20 puntos). Nivel de innovación del proyecto, considerando: el avance significativo que representa en el desarrollo de productos o servicios, el alcance de la solución propuesta, y la oportunidad de mercado o la necesidad que aborda.

— Viabilidad técnica (hasta 10 puntos). La adecuación de los métodos y técnicas propuestos para alcanzar los objetivos del proyecto.

* Calidad y eficiencia de la implementación: Hasta 25 puntos. Para la valoración de este apartado se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

— Claridad, concreción y coherencia del proyecto (hasta 5 puntos). La precisión en la descripción del proyecto, el plan de trabajo, la solidez de los indicadores de seguimiento y la gestión de riesgos.

— Capacidades del equipo de trabajo y estructura de gestión (hasta 10 puntos). La experiencia y competencias del equipo de trabajo, la adecuación de la estructura de gestión y la distribución de roles. Se tendrá en cuenta la integración de mujeres en el equipo como un factor clave de diversidad y equidad.

— Eficiencia en el uso de recursos (hasta 10 puntos). Adecuación y justificación del presupuesto, así como la eficiencia en la asignación de recursos financieros y materiales para garantizar la viabilidad del proyecto.

* Perfil de la entidad, capacidad tractora e impacto de los resultados del proyecto: hasta 35 puntos. Para la valoración de este apartado se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

— Perfil de la entidad y su capacidad tractora (hasta 10 puntos). Capacidad de la entidad para llevar a cabo el proyecto valorado en términos de tamaño, actividad y trayectoria de la empresa en el impulso de la innovación.

— Estrategias empresariales inclusivas: Igualdad de Género y Promoción del Euskera (hasta 10 puntos). La integración de medidas y acciones que favorezcan la igualdad entre mujeres y hombres, y que promuevan la utilización del euskera en su actividad.

— Impacto de los resultados del proyecto (hasta 15 puntos). Potencial del proyecto para: mejorar la competitividad de la empresa, generar valor añadido, rentabilidad, empleo y crear impacto positivo en la sociedad, así como contribuir a la sostenibilidad ambiental.

6.2. En el caso de los proyectos de colaboración, se valorará cada empresa por separado, procediendo a continuación a ponderar la puntuación en función de su esfuerzo económico y asignando la misma puntación a las dos empresas, tratando las dos peticiones unitariamente a partir de ese momento. Del mismo modo, el cálculo de la subvención otorgada a cada empresa se realizará ponderando dicho esfuerzo económico.

6.3. No se concederán ayudas a los proyectos que obtengan una puntuación inferior al 50 % de la puntuación máxima total.

6.4. En el supuesto de que, tras la aplicación de los criterios de valoración, se produzca un empate en la puntuación total de varias solicitudes, el desempate se resolverá atendiendo a la mayor puntuación obtenida en el criterio de valor y excelencia de la propuesta.

*Base 7.ª Régimen jurídico.*

7.1. Las subvenciones objeto de las presentes bases reguladoras se regirán, además de lo dispuesto en las mismas, por la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, su Reglamento de desarrollo (aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril) y demás normativa aplicable en materia de subvenciones.

EK\CV GAO-I-2026-02144

7.2. Oinarri hauetan jasotzen diren dirulaguntzek bete beharko dute Europar Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduak (EB), laguntza kategoria batzuk Itunaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuta merkatu batuarekin bateragarri direla deklaratzen duenak, 25.2 c) eta 28.2 c) artikuluan xedatutakoa (EBAO L 187. zk. 2014/06/26).

III. ERANSKINA

*«BerriTEK+ prozesuak» dirulaguntza lerroaren oinarri bereziak.*

*1. oinarria. Objektua.*

Laguntza-lerro hau bideratuta dago garapen fase aurreratuan dauden baina oraindik testuinguru operatibo, produktibo edo komertzialetan ezarrita ez dauden soluzio teknologikoak dituzten proiektuetara. Lerro honen bidez, teknologia horien integrazioa eta baliozkotzea bultzatu nahi da, enpresa onuradunen lehiakortasuna modu errealean hobetzen laguntzeko. Proiektuek berrikuntza teknologikoko osagai bat izan beharko dute, erakundeak berak lehendik zituenekin alderatuta prozesu berriak edo nabarmen hobetuak garatzea ahalbidetuko duena.

Lerroa bi jarduera-mota osagarritan egituratzen da:

A mota: prozesu industrialetan teknologia aurreratuen ezarpena eta baliozkotzea, garapen teknologikoaren azken faseetan dauden eta jarduera errealean modu eraginkorrean integratu nahi diren proiektuetara zuzendua.

B mota: ETEen berrikuntza teknologikoa bultzatzeko zerbitzu aurreratuak, enpresa txiki eta ertainei beren bide eta ibilbide-orri teknologikoen diseinuan laguntzeko.

A motako proiektuak Europar Batasunak garapen esperimentaleko kategoria gisa definitutako kategorian sartzen dira.

*2. oinarria. Entitate onuradunak.*

2.1. Enpresa onuradunak: jarduera Gipuzkoan garatzen duten enpresak, betiere lagundu beharreko proiektuaren emaitza instalazio horietan zuzenean aplikatzekoa bada. Gainera, B motako proiektuetan, erakunde onuradunak ETEak izan behar dira.

2.2. Lehentasuna izango dute aurreko enpresen ekoizpen-prozesuari lotutako industria-jarduerak, erauztekoak, eraldatzekoak, ekoizpenekoak, zerbitzu teknikoetakoak, informazioaren gizartearen edo komunikazioen eremukoak. Baldintza hori enpresaren jarduera nagusiaren EJZn (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga) alta emandako epigrafetik aurrera egiaztatuko da.

Epigrafe onargarrien zerrenda eskuragarri dago programaren informazioaren artean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzen orrian.

Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, plataforma korporatiboen bidez, bitartekotza-plataformen bidez (Nisae, Euskadiko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-nodoa) edo sarbide publikoko plataformen bidez, alta egoeran dauden JEZren epigrafeetako datuak egiaztatuko ditu.

Egiaztapen automatikoaren aurka daudela adierazi ahal izango dute eskabidean; kasu horretan, Ogasuneko administrazio-instantziak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

2.3. Ezingo dira onuradun izan Europar Batasuneko Batzordeak dirulaguntza legez kontrakoa dela eta merkatu bateratuarekin bateraezina dela aldez aurretik erabaki ondoren, laguntzak berreskuratzeko agindupean dauden enpresak; ezta krisian dauden enpresak ere.

7.2. Las subvenciones contempladas en las presentes bases están sujetas al artículo 25.2 c) y 28.2 c) del Reglamento (UE) n.º 651/2014 de la Comisión Europea, de 17 de junio por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado (DOUE, L n.º 187, de 26/06/2014).

ANEXO III

*Bases específicas de la línea de subvención «BerriTEK+ procesos».*

*Base 1.ª Objeto.*

Se dirige a proyectos con soluciones tecnológicas que, aun estando en una fase de desarrollo avanzada, no han sido implementadas en contextos operativos, productivos o comerciales reales. A través de esta línea, se pretende impulsar la integración y validación de dichas tecnologías, contribuyendo de forma tangible a mejorar la competitividad de las empresas beneficiarias. Los proyectos deberán incorporar un componente de innovación tecnológica, que permita desarrollar procesos que sean nuevos o estén sustancialmente mejorados respecto a los que previamente tenía la propia organización.

La línea se estructura en dos tipos de actuación complementarias:

Tipo A: implementación y validación de tecnologías avanzadas en procesos industriales, dirigida a proyectos en fases finales de desarrollo tecnológico, que buscan su integración efectiva en operaciones reales.

Tipo B. Servicios avanzados de apoyo a la innovación tecnológica en PYMEs, orientada a acompañar a las pequeñas y medianas empresas en el diseño de sus itinerarios y hojas de ruta tecnológicas.

Los proyectos de tipo A se incluyen dentro de la categoría definida por la Unión Europea como de desarrollo experimental.

*Base 2.ª Entidades beneficiarias.*

2.1. Serán empresas beneficiarias: las empresas que desarrollan su actividad en Gipuzkoa, siempre que el resultado del proyecto a apoyar sea de aplicación directa a estas instalaciones. Además, es requisito en los proyectos del tipo B que las entidades beneficiarias sean PYMEs.

2.2. Tendrán prioridad los proyectos que desarrollen actividades industriales, extractivas, transformadoras, productivas, de servicios técnicos ligados al proceso productivo de las anteriores, del ámbito de la sociedad de la información o las comunicaciones. Este requisito será comprobado a partir del epígrafe en el alta en el IAE (Impuesto de Actividades Económicas) de la actividad principal de la empresa.

La relación de epígrafes admisibles está disponible entre la información del programa, en la página de subvenciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos verificará, a través de plataformas corporativas, de intermediación (Nisae, nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi) o de acceso público, los datos de los epígrafes del IAE en situación de alta.

Podrán manifestar en la solicitud su oposición expresa a la verificación automática, en cuyo caso deberán aportar la correspondiente certificación expedida por la instancia administrativa de Hacienda.

2.3. Quedan excluidas como beneficiarias las empresas que estén sujetas a una orden de recuperación pendiente tras una decisión previa de la Comisión de la Unión Europea que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado común, así como las empresas en crisis.

EK\CV GAO-I-2026-02144

2.4. Dirulaguntza hauetara enpresek bakarka edo entitate talde batek bultzatuta A motako proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte. Lankidetza proiektuetan, entitate batek lidergoa hartuko du eta taldekideen lider gisa arituko da. Elkarlan proiektuen kasuan, proiektuan parte hartzen duen enpresa multzotik, Gipuzkoako enpresei dagokien parteak bakarrik jasoko du dirulaguntza.

*3. oinarria. Proiektuaren baldintzak.*

3.1. Diruz lagunduko dira prozesuei aplikatutako teknologia aurreratuak garatzera eta hartzera bideratutako proiektuak, baldin eta osagai berritzaile eta teknologiko argia badute eta heldutasun teknologiko handia badute. Proiektuek nabarmen lagundu beharko dute enpresaren lehiakortasuna hobetzen, ingurune errealean erabat inplementatu ez diren berrikuntzak txertatuz.

Lerroak bi jarduera-arlo osagarritan egituratzen da, baldintza hauekin:

A. mota. Teknologia aurreratuak garatzea, inplementatzea eta baliozkotzea. Teknologiak garapen-fase aurreratuetan integratzera bideratutako proiektuak, oraindik enpresaren ingurune operatiboan ezarri ez direnak. Honako hauek sartzen dira:

— Prozesu industrialak sortzea edo funtsean hobetzea ahalbidetzen duten teknologiak ezartzea.

— Erakusketa-jarduerak, prototipo pilotuak egitea, funtzionamendu-baldintza errealetan saiakuntzak egitea eta soluzio teknologikoak baliozkotzea.

— Produktuaren, prozesuaren edo zerbitzuaren bideragarritasun teknikoa eta komertziala bermatzeko beharrezko ziurtagiriak eta homologazioak.

Proiektuen helburua teknologia aurreratuak aplikatzea izango da, besteak beste, material aurreratuak, automatizazio- eta kontrol-sistema adimendunak, fabrikazio aurreratua, adimen artifiziala... enpresen eraginkortasuna, berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzeko. Hainbat arlotara bideratutako ekimenak aurkeztu ahal izango dira, hala nola industria-prozesu adimendunak, zerbitzu adimendunak, erabakiak hartzen laguntzeko sistemak, logistika aurreratua, mantentze prediktiboa, plangintza adimenduna edo enpresa-prozesuen optimizazioa, hala nola erosketak, stocken kudeaketa, salmentak eta marketina.

B mota. ETEen berrikuntza teknologikorako zerbitzu aurreratuak. ETEek eraldaketa teknologikoa planifikatzeko eta bultzatzeko dituzten gaitasunak indartzeko proiektuak. Honako hauek sartzen dira:

— Bide eta ibilbide-orri teknologikoak diagnostikatzeko, aztertzeko eta definitzeko zerbitzuak, prozesuan berrikuntza-aukerak identifikatzeko.

*4. oinarria. Dirulaguntzaren xede diren jarduerak eta diruz lagundu daitezkeen gastuak.*

4.1. Erakundeek proiektu bakarra aurkeztu ahal izango dute jarduera-mota bakoitzeko. Proiektu bat baino gehiago aurkezten badituz, lehenik aurkeztutakoa bakarrik hartuko du kontuan prozeduraren organo izapidegileak.

4.2. Diruz lagundu daitezkeen gastuak: Erakunde eskatzaileak aurkezten duen jardueraren aurrekontu banakatu eta xehatuan jasota dauden gastuak, zalantzarik gabe jardueraren garapenari lotuta daudenak eta ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 25.3 artikuluan ezarrita daudenak, zehazki, honako hauen zuzeneko gastuak:

* A motako proiektuetan:

— Barruko langilerai gastuak;

— Instrumentala eta material, proiekturako erabiltzen diren neurrian eta aldian;

— Patenteak;

— Eta azpikontratazioak.

2.4. A estas subvenciones podrán presentarse proyectos del tipo A impulsados por empresas de manera individual o por un conjunto de entidades, en cuyo caso una ejercerá de líder de todas ellas. En el caso de proyectos en cooperación del conjunto de empresas que participen en el proyecto únicamente serán objeto de subvención la parte correspondiente a las empresas de Gipuzkoa.

*Base 3.ª Requisitos del proyecto.*

3.1. Se considerarán subvencionables los proyectos orientados al desarrollo y adopción de tecnologías avanzadas aplicadas a procesos con un claro componente innovador y tecnológico, y con grado alto de madurez tecnológica. Los proyectos deberán contribuir de forma significativa a mejorar la competitividad de la empresa mediante la introducción de innovaciones que aún no hayan sido plenamente implementadas en su entorno real.

La línea se articula en dos tipos de actuación complementarias, con los siguientes requisitos:

Tipo A. Desarrollo, implementación y validación de tecnologías avanzadas. Proyectos orientados a la integración de tecnologías en fases avanzadas de desarrollo, aún no implantadas en el entorno operativo de la empresa. Se incluyen:

— Implantación de tecnologías que permitan la creación o mejora sustancial de procesos.

— Actividades de demostración, elaboración de prototipos piloto, ensayos en condiciones reales de funcionamiento y validación operativa de soluciones tecnológicas.

— Certificaciones y homologaciones necesarias para garantizar la viabilidad técnica y comercial del proceso.

Los proyectos deberán tener como finalidad la aplicación de tecnologías avanzadas, entre otras, los materiales avanzados, los sistemas inteligentes de automatización y control, la fabricación avanzada, la inteligencia artificial... para impulsar la eficiencia, la innovación y la competitividad de las empresas. Podrán presentarse iniciativas orientadas a ámbitos como los procesos industriales inteligentes, sistemas de apoyo a la toma de decisiones, logística avanzada, mantenimiento predictivo, planificación inteligente o la optimización de procesos empresariales como por ejemplo compras, gestión de stocks, ventas y marketing.

Tipo B. Servicios avanzados para la innovación tecnológica de las PYMEs. Proyectos dirigidos a reforzar las capacidades de las pymes para planificar e impulsar su transformación tecnológica. Se incluyen:

— Servicios de diagnóstico, análisis y definición de itinerarios y hojas de ruta tecnológicas que permitan identificar oportunidades de innovación en proceso.

*Base 4.ª Actuaciones objeto de subvención y gastos susceptibles de apoyo.*

4.1. Las entidades sólo podrán presentar un único proyecto por cada tipo de actuación. En caso de presentar más de una solicitud, el órgano instructor del procedimiento únicamente considerará la presentada en primer lugar.

4.2. Gastos subvencionables: aquellos gastos que figurando recogidos en el presupuesto desglosado y detallado de la actividad que presente la entidad solicitante, estén vinculados de manera indubitada al desarrollo de la misma y estén establecidos en el artículo 25.3 del Reglamento (UE) n.º 651/2014, de 17 de junio, específicamente los gastos directos de:

* En proyectos tipo A:

— Personal interno;

— Instrumental y material, en la medida y durante el periodo en que se utilicen para el proyecto;

— Patentes;

— Y las subcontrataciones.

EK\CV GAO-I-2026-02144

* B motako proiektuetan:

— Azpikontratazioak.

4.3. Langileria gastuen kasuan:

— Barruko langileak badira, enpresarentzako kostu erreala hartuko da hautagarritzat. Barruko langileen gehieneko kostu hautagarria deialdi bakoitzean zehaztu daiteke. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak (aurrerantzean, departamentua) uste badu proposatutako ordu-dedikazioa gehiegizkoa dela, muga bat ezarri ahal izango du, enpresaren langile kopuru osoaren eta kasuan kasuko proiektu motaren arabera.

— Kanpoko langileen gehieneko kostu hautagarria deialdi bakoitzean zehaztu daiteke.

4.4. Zeharkako gastu hautagarritzat hartuko dira, deialdi bakoitzak ezartzen dituen baldintzetan, eta gehienez ere % 20ko ehunekoa aplikatuko zaie langile propioen zuzeneko gastuei.

Ez da beharrezkoa izango justifikazio dokumental indibidualizaturik aurkeztea kontzeptu bakoitzeko. Gastu horien barruan sartuko dira proiektua gauzatzearekin lotutako erakundearen egitura- eta administrazio-kostu orokorrak.

4.5. Onuradunari lotutako pertsonei edo entitateei dagozkien gastuak ez dira diruz lagunduko, salbu eta:

— Enpresari lotutako enpresako I+G unitatea bada, edo

— Merkatuko baldintza arrunten arabera egiten bada; eta aldez aurretik departamentuaren baimena eskuratu bada.

4.6. Ez dira lagunduko:

— Eremu teknologiko espezifikoekin erlazionatuta dauden proiektuak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren beste programa batzuk sustatzen dituztelako. Salbuespenak deialdi bakoitzean zehaztuko dira.

— Proiektuen bigarren faseak edo zerbitzuen bertsio hobetuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak jada sustatuta daudenak.

— Prozesuen kalitatea hobetzeko ohiko ahaleginak, lehendik dagoen ekoizpen-prozesu bat bezero batek ezarritako baldintza espezifikoetara egokitzea, aldian behingo edo sasoiko aldaketak, prozesuetan, ekoizpen-lerroetan, fabrikazio-prozesuetan, zerbitzuetan eta abian dauden beste eragiketa batzuetan egindako ohiko edo aldizkako aldaketak, nahiz eta aldaketa horiek hobekuntzak ekar ditzaketen.

— Ekoizpen-jardueraren plangintza; produkzioaren prestaketa eta hasiera; berrikuntza-jardueren eraginpean ez dauden instalazioak, makinak, ekipoak eta produkzio-sistemak sartzea edo aldatzea; etendako produkzio-prozesuen arazo teknikoak konpontzea; kalitate-kontrola eta prozesuen normalizazioa; gizarte-zientzien eta merkatu-azterketen arloko prospekzioa; merkaturatzeko sareak edo instalazioak ezartzea; langileak trebatzea eta prestatzea.

— Bidaiei eta mantenuari dagozkien gastuak.

— Fakturan jasanarazitako Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

*5. oinarria. Dirulaguntzen portzentajea eta gehieneko zenbatekoa.*

5.1. A motan, ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduaren (EB) 25.5 artikuluaren arabera, laguntzaren intentsitatea ez da izango diruz lagundu daitekeen kostuaren % 25 baino gehiagokoa.

5.2. A motan, laguntzen intentsitatea handitu ahalko da, gehienez ere diruz lagundu daitezkeen gastuen % 60ra arte, ondorengo eran:

* En proyectos tipo B:

— Las subcontrataciones.

4.3. En el caso de los gastos del personal:

— Para el personal interno, se considerará elegible el coste real para la empresa, hasta el valor máximo que pueda fijarse en cada convocatoria. En aquellos casos en que el Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos (en adelante, «el departamento») estime que la dedicación horaria propuesta es elevada, podrá establecer un límite en función de la plantilla total de la empresa y del tipo de proyecto.

— Si se trata de personal externo se considerarán elegibles hasta un valor máximo que se podrá limitar en cada convocatoria.

4.4. Se considerarán gastos indirectos elegibles, en los términos que establezca cada convocatoria, aplicando como máximo el porcentaje del 20 % sobre los gastos directos de personal propio.

No será necesaria la presentación de justificación documental individualizada por cada concepto. Estos gastos comprenderán los costes generales de estructura y administración de la entidad relacionados con la ejecución del proyecto.

4.5. No serán gastos subvencionables aquellos correspondientes a personas o entidades vinculadas con la beneficiaria, salvo que:

— Se trate de la Unidad de I+D empresarial vinculada a la empresa o

— Se realice de acuerdo con las condiciones normales de mercado; y se obtenga la previa autorización del departamento.

4.6. No serán subvencionables:

— Proyectos relacionados con ámbitos tecnológicos específicos apoyados por otros programas de la Diputación Foral de Gipuzkoa; estas exclusiones se concretarán en cada convocatoria.

— Segundas fases de proyectos o versiones mejoradas de procesos ya apoyados por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Los esfuerzos rutinarios para mejorar la calidad de procesos, la adaptación de un proceso de producción ya existente a los requisitos específicos impuestos por un cliente, los cambios periódicos o de temporada, las modificaciones habituales o periódicas efectuadas en procesos, líneas de producción, procesos de fabricación, servicios y otras operaciones en curso, aun cuando estas modificaciones puedan representar mejoras de estos.

— La planificación de la actividad productiva; la preparación y el inicio de la producción; la incorporación o modificación de instalaciones, máquinas, equipos y sistemas para la producción que no estén afectados a actividades de innovación; la solución de problemas técnicos de procesos productivos interrumpidos; el control de calidad y la normalización de procesos; la prospección en materia de ciencias sociales y estudios de mercado; el establecimiento de redes o instalaciones para la comercialización; el adiestramiento y la formación del personal.

— Gastos relativos a viajes y manutención.

— El Impuesto sobre el Valor Añadido repercutido en factura.

*Base 5.ª Porcentaje y cuantía máxima de subvención.*

5.1. En el tipo A, de acuerdo con el artículo 25.5 del Reglamento (UE) n.º 651/2014, de 17 de junio, la intensidad de la ayuda no excederá del 25 % del coste subvencionable.

5.2. En el tipo A, las intensidades de ayuda podrán aumentarse hasta un máximo del 60 % de los costes subvencionables, como se indica a continuación:

EK\CV GAO-I-2026-02144

a) % 10, enpresa ertainen kasuan, eta % 20 enpresa txikien kasuan;

b) % 15, baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

i) proiektuak berarekin ekartzea lankidetza eraginkor bat:

— Enpresen artean, horietako bat, gutxienez, ETE bat izanik, edo lankidetza hori, gutxienez, Europar Batasuneko bi estatutan gauzaturik, edota estatu batean eta EEEko Akordioko alderdi kontratatzaile batean, eta ezein enpresaren kontura bakarrik ez izatea diruz laguntzekoak diren kostuen % 70 baino gehiago, edo

— Enpresa baten eta ikerketako nahiz ezagutzaren zabalkundeko erakunde baten edo batzuen artean, azkeneko horiek bereganaturik diruz laguntzekoak diren kostuen % 10, gutxienez, eta eskubidea izanik beren ikerlanaren emaitzak argitaratzeko,

ii) Proiektuaren emaitzak hedatzea, hainbat bitarteko erabiliz, hala nola hitzaldiak, argitalpenak, irispide libreko oinarriak, eta programa informatiko doakoak edo iturri irekikoak.

5.3. A motan, banakako proiektuen kasuan, gehieneko dirulaguntza 60.000 € izango da eta 70.000 € lankidetza proiektuetarako.

5.4. B. motan, ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduaren (EB) 28.3 artikuluaren arabera, laguntzaren intentsitatea ez da izango diruz lagundu daitekeen kostuaren % 50 baino gehiagokoa. Intentsitate hori handitu ahal izango da, ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduan (EB) 28.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, % 100eraino, baldin eta zerbitzu horietarako laguntzen zenbateko osoa ez bada 200.000 € baino handiagoa enpresa bakoitzeko, hiru urteko edozein alditan.

5.5. B. motan, banakako proiektuen kasuan, gehieneko dirulaguntza 20.000 € izango da.

*6. oinarria. Balorazio irizpideak.*

6.1. Eskaerei 100 puntuko balorazioa emango zaie gehienez ere, ezarritako irizpide hauen arabera:

Proposamenaren balioa eta bikaintasuna: gehienez 40 puntu. Atal hau baloratzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

— Deialdiaren helburuekin eta funtsezko teknologiekin bat etortzea (gehienez 10 puntu). Proiektua deialdiaren helburuetara zenbateraino egokitzen den, eta 3. oinarrian, 3.1 puntuan identifikatutako teknologia estrategikoekin duen lotura.

— Berrikuntza eta garapen-maila (gehienez 20 puntu). Proiektuaren berrikuntza-maila, honako hauek kontuan hartuta: aurrerapen esanguratsua, proposatutako soluzioaren irismena, eta merkatuaren aukera edo jorratzen duen beharra.

— Bideragarritasun teknikoa (gehienez 10 puntu). Proiektuaren helburuak lortzeko proposatutako metodoen eta tekniken egokitasuna.

* Inplementazioaren kalitatea eta eraginkortasuna: gehienez 25 puntu. Atal hau baloratzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

— Proiektuaren argitasuna, zehaztasuna eta koherentzia (gehienez 5 puntu). Zehaztasuna proiektuaren deskribapenean, lan-planean, jarraipen-adierazleen sendotasunean eta arriskuen kudeaketan.

— Lantaldearen gaitasunak eta kudeaketa-egitura (gehienez 10 puntu). Lantaldearen esperientzia eta gaitasunak, kudeaketa-egituraren egokitzapena eta rolen banaketa. Kontuan hartuko da emakumeak taldean integratzea aniztasunaren eta ekitatearen funtsezko faktore gisa.

a) en 10 puntos porcentuales en el caso de las medianas empresas y en 20 puntos porcentuales en el caso de las pequeñas empresas;

b) en 15 puntos porcentuales si se cumple alguna de las siguientes condiciones:

i) que el proyecto implique una colaboración efectiva:

— Entre empresas, al menos una de las cuales sea una PYME, o se desarrolle en al menos dos Estados miembros, o en un Estado miembro y en una Parte Contratante en el Acuerdo EEE, y que ninguna empresa corra por sí sola con más del 70 % de los costes subvencionables, o

— Entre una empresa y uno o varios organismos de investigación y difusión de conocimientos, asumiendo estos como mínimo el 10 % de los costes subvencionables y teniendo derecho a publicar los resultados de su propia investigación,

ii) Que los resultados del proyecto se difundan ampliamente por medio de conferencias, publicaciones, bases de libre acceso o programas informáticos gratuitos o de fuente abierta.

5.3. En el tipo A la subvención máxima para los proyectos individuales será de 60.000 € y de 70.000 € para los proyectos en cooperación.

5.4. En el tipo B, de acuerdo con el artículo 28.3 del Reglamento (UE) n.º 651/2014, de 17 de junio, la intensidad de la ayuda no excederá del 50 % del coste subvencionable. Está intensidad podrá incrementarse tal y como se establece en el artículo 28.4 del Reglamento (UE) n.º 651/2014, de 17 de junio hasta el 100 % a condición de que el importe total de las ayudas para estos servicios no sea superior a 200.000 € por empresa en cualquier periodo de tres años.

5.5. En el tipo B la subvención máxima para los proyectos individuales será de 20.000 €.

*Base 6.ª Criterios de valoración.*

6.1. Las solicitudes serán valoradas hasta un total de 100 puntos, conforme a los siguientes criterios:

Valor y excelencia de la propuesta: hasta 40 puntos. Para la valoración de este apartado se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

— Alineación con los objetivos de la convocatoria y tecnologías clave (hasta 10 puntos). Grado de adecuación del proyecto a los objetivos de la convocatoria, así como su relación con las tecnologías estratégicas identificadas en la Base 3.ª, 3.1.

— Innovación y grado de desarrollo (hasta 20 puntos). Nivel de innovación del proyecto, considerando: el avance significativo, el alcance de la solución propuesta, y la oportunidad de mercado o la necesidad que aborda.

— Viabilidad técnica (hasta 10 puntos). La adecuación de los métodos y técnicas propuestos para alcanzar los objetivos del proyecto.

* Calidad y eficiencia de la implementación: hasta 25 puntos. Para la valoración de este apartado se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

— Claridad, concreción y coherencia del proyecto (hasta 5 puntos). La precisión en la descripción del proyecto, el plan de trabajo, la solidez de los indicadores de seguimiento y la gestión de riesgos.

— Capacidades del equipo de trabajo y estructura de gestión (hasta 10 puntos). La experiencia y competencias del equipo de trabajo, la adecuación de la estructura de gestión y la distribución de roles. Se tendrá en cuenta la integración de mujeres en el equipo como un factor clave de diversidad y equidad.

EK\CV GAO-I-2026-02144

— Eraginkortasuna baliabideak erabiltzean (gehienez 10 puntu). Aurrekontuaren egokitzapena eta justifikazioa, baita proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko finantza-baliabideen eta baliabide materialen esleipenaren eraginkortasuna ere.

* Erakundearen profila, trakzio-gaitasuna eta proiektuaren emaitzen eragina: gehienez 35 puntu. Atal hau baloratzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

— Erakundearen profila eta trakzio-ahalmena (gehienez 10 puntu). Erakundeak proiektua aurrera eramateko duen gaitasuna, enpresaren tamaina, jarduera eta berrikuntzaren sustapenean egindako ibilbidearen arabera baloratua.

— Enpresa-estrategia inklusiboak: genero-berdintasuna eta euskara sustatzea (gehienez 10 puntu). Legez eskatutakoez gain, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen duten eta beren jardueran euskararen erabilera sustatzen duten neurriak eta ekintzak integratzea.

— Proiektuaren emaitzen eragina (gehienez 15 puntu). Proiektuaren potentziala enpresaren lehiakortasuna hobetzeko, balio erantsia, errentagarritasuna eta enplegua sortzeko, gizartean eragin positiboa sortzeko eta ingurumenaren iraunkortasunari laguntzeko.

6.2. Lankidetza-proiektuen kasuan, enpresa bakoitza bereizita baloratuko da, eta, ondoren, bere ahalegin ekonomikoaren arabera haztatuko da puntuazioa, eta puntuazio bera emango zaie bi enpresei, bi eskaerak batera tratatuz une horretatik aurrera. Era berean, enpresa bakoitzari emandako dirulaguntza kopururaren kalkulua egiteko, ahalegin ekonomiko horren arabera haztatuko da.

6.3. Ez zaie laguntzarik emango gehieneko puntuazioaren % 50 baino gutxiago lortzen duten proiektuei.

6.4. Balorazio-irizpideak aplikatu ondoren hainbat eskabideren guztizko puntuazioan berdinketa gertatzen bada, berdinketa hausteko, proposamenaren balio- eta bikaintasun-irizpidean lortutako puntuazio handiena hartuko da kontuan.

*7. oinarria. Araubide juridikoa.*

7.1. Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak arautzeko kontuan hartuko dira martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoan, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako araudian, eta dirulaguntzen alorreko gainerako araudi aplikagarrietan ezarritakoa.

7.2. Oinarri hauetan jasotzen diren dirulaguntzek bete beharko dute Europar Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduak (EB), laguntza kategoria batzuk Itunaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuta merkatu batuarekin bateragarri direla deklaratzen duenak, 25.2 c) eta 28.2 c) artikuluan xedatutakoa (EBAO L 187. zk. 2014/06/26).

ERASKINA IV

*«Gipuzkoako industria-enpresetan berrikuntza teknologikoa bultzatzeko BerriTEK+» programaren 2026ko deialdia.*

*1. Xedea eta oinarri arautzaileak.*

«Gipuzkoako industria-enpresetan berrikuntza teknologikoa bultzatzeko (BerriTEK+)» programaren «BerriTEK+ Produktua» eta «BerriTEK+ Prozesua» lerroetako dirulaguntzen 2026erako deialdia egitea.

Laguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak eta oinarri espezifikoak Diputatuen Kontseiluaren 2026ko martxoaren 24ko erabakiaren bidez onetsitakoak dira, eta deialdi honekin batera argitaratu dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

— Eficiencia en el uso de recursos (hasta 10 puntos). Adecuación y justificación del presupuesto, así como la eficiencia en la asignación de recursos financieros y materiales para garantizar la viabilidad del proyecto.

* Perfil de la entidad, capacidad tractora e impacto de los resultados del proyecto: hasta 35 puntos. Para la valoración de este apartado se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

— Perfil de la entidad y su capacidad tractora (hasta 10 puntos). Capacidad de la entidad para llevar a cabo el proyecto valorado en términos de tamaño, actividad y trayectoria de la empresa en el impulso de la innovación.

— Estrategias empresariales inclusivas: Igualdad de Género y Promoción del Euskera (hasta 10 puntos). La integración de medidas y acciones que favorezcan la igualdad entre mujeres y hombres, más allá de las legalmente exigidas, que promuevan la utilización del euskera en su actividad.

— Impacto de los resultados del proyecto (hasta 15 puntos). Potencial del proyecto para: mejorar la competitividad de la empresa, generar valor añadido, rentabilidad, empleo y crear impacto positivo en la sociedad, así como contribuir a la sostenibilidad ambiental.

6.2. En el caso de los proyectos de cooperación, se valorará cada empresa por separado, procediendo a continuación a ponderar la puntuación en función de su esfuerzo económico y asignando la misma puntación a las dos empresas, tratando las dos peticiones unitariamente a partir de ese momento. Del mismo modo, el cálculo de la subvención otorgada a cada empresa se realizará ponderando dicho esfuerzo económico.

6.3. No se concederán ayudas a los proyectos que obtengan una puntuación inferior al 50 % de la puntuación máxima total.

6.4. En el supuesto de que, tras la aplicación de los criterios de valoración, se produzca un empate en la puntuación total de varias solicitudes, el desempate se resolverá atendiendo a la mayor puntuación obtenida en el criterio de valor y excelencia de la propuesta.

*Base 7.ª Régimen jurídico.*

7.1. Las subvenciones objeto de las presentes bases reguladoras se regirán, además de lo dispuesto en las mismas, por la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, su Reglamento de desarrollo (aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril) y demás normativa aplicable en materia de subvenciones.

7.2. Las subvenciones contempladas en las presentes bases están sujetas al artículo 25.2 c) y 28.2 c) del Reglamento (UE) n.º 651/2014 de la Comisión Europea, de 17 de junio por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado (DOUE, L n.º 187, de 26/06/2014).

ANEXO IV

*Convocatoria 2026 del «programa BerriTEK+ para impulsar la innovación tecnológica de las empresas industriales de Gipuzkoa».*

*1. Objeto y bases reguladoras.*

Convocar para el año 2026 las subvenciones de las líneas «BerriTEK+ Producto» y «BerriTEK+ Proceso» del del «Programa para impulsar la innovación tecnológica de las empresas industriales de Gipuzkoa (BerriTEK+)».

Las bases reguladoras generales y las bases específicas para la concesión de las ayudas son las aprobadas por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 24 de marzo de 2026, publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa junto con la presente convocatoria.

EK\CV GAO-I-2026-02144

*2. Finantzaketa.*

2.1. Guztira deialdi honetan emango diren laguntzen zenbatekoa bi milioi eurokoa da (2.000.000,00 €), eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorreko ondorengo kontu sailetan banatuta dago:

— BerriTEK+ Prozesua.

1 0520.210.770.00.08 2026: 700.000 €.

5 0520.210.770.00.08 2027: 300.000 €.

— BerriTEK+ Produktua.

1 0520.210.770.00.01 2026: 700.000 €.

5 0520.210.770.00.01 2027: 300.000 €.

2.2. Baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu egin daiteke, aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak, deialdi berri bat egin beharrik izan gabe. Gehikuntza hori benetan gertatzeko, ezinbestekoa da dirulaguntzak onartzen dituen ebazpena eman aurretik nahikoa kreditu dagoela deklaratzea.

*3. Entitate onuradunen baldintzak.*

Dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte 2. oinarri arautzaile orokorretan aipatzen diren erakundeak.

*4. Dirulaguntzaren xede diren jarduerak.*

Diruz lagunduko diren jarduerak 4. oinarri arautzaile espezifikoetan aipatutakoak dira.

*5. Eskaerak aurkezteko epea.*

5.1. Eskaerak aurkezteko epea 40 egun naturalekoa izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Eskaerak epearen azken eguneko 13:00ak arte aurkeztu ahal izango dira. Epearen azken eguna egun baliogabea bada (larunbata, igandea edo jaiegun izendatutakoak), hurrengo egun baliodunera luzatuko da epea.

5.2. Proiektuek ezingo dute hasita egon eskaera aurkeztu aurretik.

*6. Dokumentazio elkarreragingarria eta egiaztagarria.*

Deialdi honetan Gipuzkoako Foru Aldundiak honako betekizun hauek egiaztatuko ditu plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae, Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoa) edo sarbide publikoko plataformen bidez:

— Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

— Ogasunarekiko betebeharrak egunean izatea.

— Alta emanda dauden EJZren epigrafeetako datuak.

Eskaeran berariaz adierazi ahal izango dute egiaztapen automatikoaren aurka daudela; kasu horretan, Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako organo administratiboek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

*7. Eskaerarekin batera aurkeztu behar diren agiriak.*

7.1. «Dirulaguntzen Ataritik» sartuko da eskatzailea eskaerara. Eskaeran, eskatzailearen identifikazio datuez gain, erantzukizuneko aitorpen bat ere jasoko da.

7.2. Eskaera eranskinean dagoen ereduari jarraituz egingo da, eta horrekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

7.2.1. Banakako proiektuak.

a) Proiektua baloratzeko galdetegia. Galdetegian proiektuari buruzko hainbat informazio eskatuko da ikuspegi teknikoaren aldetik eta merkatuaren ikuspegitik, eta baita ere enpresari

*2. Financiación.*

2.1. La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de dos millones de euros (2.000.000,00 €) con cargo a las siguientes partidas de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

— BerriTEK+ Proceso.

1 0520.210.770.00.08 2026: 700.000 €.

5 0520.210.770.00.08 2027: 300.000 €.

— BerriTEK+ Producto.

1 0520.210.770.00.01 2026: 700.000 €.

5 0520.210.770.00.01 2027: 300.000 €.

2.2. El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

*3. Requisitos de las entidades beneficiarias.*

Podrán ser beneficiarias las entidades que se mencionan en la base 2.ª de las bases reguladoras generales.

*4. Actuaciones objeto de subvención.*

Son actuaciones objeto de subvención aquellas que se mencionan en la base 4.ª de las bases reguladoras específicas.

*5. Plazo de presentación de solicitudes.*

5.1. El plazo de presentación de solicitudes será de 40 días naturales, a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Se podrán presentar solicitudes hasta las 13:00 horas del último día del plazo. Cuando el último día del plazo sea inhábil (sábado, domingo o los declarados festivos), se entenderá prorrogado al primer día hábil siguiente.

5.2. Los proyectos no podrán haberse iniciado con anterioridad a la presentación de la solicitud.

*6. Documentación interoperable y verificable.*

Los requisitos que la Diputación Foral de Gipuzkoa verificará en esta convocatoria a través de plataformas corporativas, de intermediación (Nisae, nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi) o de acceso público serán los siguientes:

— Estar al corriente de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.

— Estar al corriente de sus obligaciones con Hacienda.

— Datos de los epígrafes del IAE en situación de alta.

Podrán manifestar en la solicitud su oposición expresa a la verificación automática, en cuyo caso deberán aportar las correspondientes certificaciones expedidas por las instancias administrativas de Hacienda y Seguridad Social.

*7. Documentación que acompaña a la solicitud.*

7.1. A través del «Portal de subvenciones» se accederá a la solicitud, que además de los datos identificativos de la entidad solicitante, incluye la declaración responsable.

7.2. La solicitud se realizará según el modelo que se incluye en el anexo y deberá adjuntarse a la misma la siguiente documentación:

7.2.1. Proyectos individuales.

a) Cuestionario para la valoración del proyecto. En el mismo, se requerirá diversa información sobre el proyecto, desde un punto de vista técnico y de mercado, así como de la propia

EK\CV GAO-I-2026-02144

buruzko informazioa, eta duela gutxiko eta aurreikusitako bilakaerari buruzko datuak, beharrezkoak baitira enpresa proiektuaren bultzada-gaitasuna ebaluatzeko.

b) Dirulaguntza eskatzen den proiektuko jardueren kronograma: jarduera bakoitzeko ezarritako datak eta dagozkion kostuak zehaztu beharko dira.

c) Aurrekontu xehatua formatu estandarrean.

d) Alcance y tecnologías implicadas en el proyecto.

e) Proiektuaren azalpen zabaldua, gehienez 10 orrikoa.

f) Edukiz gero, genero berdintasunaren eta euskararen arloko entitate eskumendunek igorritako ziurtagiriak, edo dagozkien planak eta planak ezarri izanaren frogak.

g) Erantzukizunpeko adierazpena eranskinean edo bide telematikoz egindako eskaeran dagoen ereduari jarraituz, ez dagoela Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. artikuluan aurreikusten diren onuradun izateko eragozten duten egoeratan eta ez dagoela 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, martxoaren 16koaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren 23. artikuluaren 2. zenbakiak adierazitako debeku-kasuetako baten mende.

7.2.2. Lankidetza proiektuak.

a) Lankidetza proiektuen kasuan, 7.2.1 atalean aurreikusten den dokumentazioaz gain, beste guztien buru den entitateak aurkeztu beharko du proiektuan parte hartzen dutenen artean sinatutako lankidetza hitzarmenaren kopia, non zehaztuko diren, batetik, partaide bakoitzaren konpromiso ekonomikoak eta bere gain hartzen dituzten exekuzio konpromisoak eta, bestetik, partaideetako bakoitzak proiektuan duen egitekoa.

b) Lankidetzako proiektuetan parte hartzen duten gainontzeko entitateek, bakoitzak eskaera bat egin beharko du, eta horrekin batera 7.2.1 atalean aurreikusitako dokumentazioa aurkeztuko dute.

*8. Eskaerei buruzko erabakia hartzea eta jakinaraztea.*

Dirulaguntza emateko ala ukatzeko ebazpena eta horren jakinarazpena egiteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita.

Laguntzak eman edo, hala dagokionean, ukatzeko erabakia eskatzaile bakoitzari indibidualki jakinaraziko zaio. Hala eta guztiz ere, organo emaileak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu emandako dirulaguntzak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak 17 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

*9. Dirulaguntzak zuritu eta ordaintzea.*

9.1. Diruz lagundu diren proiektuak 2027eko irailaren 25a baino lehen justifikatu beharko dira.

9.2. Bigarren zatia ordaintzea eskatzeko, proiektua erabat burutu dutela zurituko dute 2027eko irailaren 25a baino lehen. Ordaintzeko eskaerarekin batera 14 oinarri orokorrean aurreikusitako zurigarriak aurkeztuko dira.

*10. Zerga ondorioetarako kalikazio txostena.*

Berrikuntza Zerbitzuak kalifikazio-txosten bat egingo du, berrikuntzari zerga-arinketak aplikatu behar zaizkionak (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauaren 63. artikulua), baldin eta funtsezko irizpideetan % 50eko puntuazioa edo handiagoa badute.

empresa, evolución reciente y prevista, que permitirá evaluar el potencial de tracción del proyecto empresarial.

b) Cronograma de las actividades del proyecto para el que se solicita la subvención: con indicación de las fechas establecidas para cada una de ellas, y sus costes.

c) Presupuesto desglosado según formato estándar.

d) Alcance y tecnologías implicadas en el proyecto.

e) Descripción ampliada del proyecto de un máximo de 10 páginas.

f) En su caso, certificados emitidos por entidades competentes en materia de igualdad de género y/o euskera, o planes correspondientes junto con evidencias de su implantación.

g) Declaración responsable, conforme al modelo que se incluye en el anexo o en la solicitud telemática, de no concurrir en la entidad solicitante ninguna causa impeditiva de la condición de beneficiaria de las indicadas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de no estar sometida a ninguno de los supuestos de prohibición previstos en el art. 23, apartado 2.º del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

7.2.2. Proyectos en coperación.

a) En el caso de proyectos en cooperación, además de la documentación prevista en el apartado 7.2.1, la entidad que ejerza el papel de líder deberá incorporar copia del acuerdo de cooperación suscrito entre las entidades participantes en el proyecto y en el que se definirán los compromisos económicos y de ejecución que asume cada participante y el papel de cada uno de ellos en el proyecto.

b) El resto de entidades participantes en proyectos en cooperación deberán realizar cada una de ellas una solicitud, a la que aportarán la documentación prevista en el apartado 7.2.1.

*8. Resolución de las solicitudes y notificación.*

El plazo para resolver y notificar la resolución de concesión o, en su caso, de denegación no podrá exceder de 6 meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la convocatoria.

La resolución de concesión o, en su caso denegación, se notificará a cada solicitante. No obstante, el órgano concedente publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa las subvenciones concedidas, según lo establecido en el artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*9. Justificación y pago de las subvenciones.*

9.1. Los proyectos objeto de subvención deberán justificarse antes del 25 de septiembre de 2027.

9.2. Para solicitar el segundo pago, deberán justificar la realización completa del proyecto antes del 25 de septiembre de 2027, acompañando a la solicitud la documentación justificativa prevista en la base general 14.

*10. Informe de calificación a efectos fiscales.*

El servicio de Innovación emitirá un informe de calificación a las que les sea de aplicación las desgravaciones fiscales a la innovación (art. 63 de la Norma Foral 2/2014 del Impuesto de Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa) y que tengan una puntuación igual o superior al 50 % de su puntuación en los criterios clave.

EK\CV GAO-I-2026-02144

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos

# BERRITEK+

ESKAERA / SOLICITUD

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Espedientea<br>Expediente** | | **Data<br>Fecha** | | **Sarrera kodea<br>Código acceso** | |

## ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DEL SOLICITANTE

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Eskatzailearen izena<br>Nombre del solicitante** | | **Sexua<br>Sexo** | | |
| **IFZ<br>NIF** | | **Posta Kodea<br>Código Postal** | | |
| **Helbidea<br>Dirección** | | **Ataria/Solairua<br>Portal/Piso** | | |
| **Herria<br>Localidad** | | **Lurralde historikoa<br>Territorio histórico** | | |
| **Helbide elektronikoa<br>Correo electrónico** | | **Telefonoak<br>Teléfonos** | | |
| **Kontua<br>Cta Cte.** | | **Faxa<br>Fax** | | |

## HARREMANETAKO PERTSONAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA DE CONTACTO

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Pertsonaren izena<br>Nombre de la persona** | | **Sexua<br>Sexo** | | |
| **IFZ<br>NIF** | | **Posta Kodea<br>Código Postal** | | |
| **Helbidea<br>Dirección** | | **Lurralde Historikoa<br>Territorio Histórico** | | |
| **Herria<br>Localidad** | | **Telefonoak<br>Teléfonos** | | |
| **Helbide elektronikoa<br>Correo electrónico** | | **Faxa<br>Fax** | | |

.

EK\CV GAO-I-2026-02144

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos

## Onuradun izatearen aitorpena / Declaración de condición de entidad beneficiaria

Aitortzen dut ez nigan ez ordezkatzen dudan erakundean ez dagoela pertsona edo erakunde onuradun izatea eragozten duen inguruabarrik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. artikuluan aurreikusitakorik. Era berean, ez dago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez testu bategina onetsitakoan, aurreikusitako dirulaguntzen onuradun ezarritako debeku-kasuetako baten mende.

Declaro que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las circunstancias que impidenobtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 marzo de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Asimismo, tampoco se encuentra sometida a ninguno de los supuestos de prohibición para ser beneficiaria de subvenciones previstos en la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, en su texto refundido aprobado por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo.

### Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua betetzearen adierazpena

### Declaración del cumplimiento del código de conducta y marco de integridad institucional

Konpromisoa hartzen dut Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahiz foru sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateen dirulaguntza publikoei aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua hasieratik bukaerara betetzeko, Diputatuen Kontseiluak 2018ko urriaren 2an hartutako erabakiaren arabera.

Me comprometo al cumplimiento en todos sus términos del código de conducta y marco de integridad institucional aplicable a ayudas y subvenciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del resto de entidades que integran el sector público foral, aprobado por el Consejo de Gobierno Foral, en su reunión del 2 de octubre del 2018.

### Datu pertsonalen tratamendua / Tratamiento de datos personales

Datu pertsonalak erabiliko dira dirulaguntzak emateko, kudeatzeko eta haien jarraipena egiteko prozedurak izapidetzeko,

Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua eta Foru Gobernantza Publikoaren esparruko Gobernu Onari buruzko martxoaren 11ko 4/2019 Foru Araua betez. Deialdiaren interes publikoan eta bertan parte hartzeko eskabidean oinarritutako helburua. Tratamenduaren arduraduna deialdia kudeatzen duen zuzendaritza nagusia izango da. Nortasun, harreman eta kontu korronte datuak kontabilitate erregistroetan agertzen ez badira, nortasun, harreman eta kontu korronte datuak tratamendu batean sartuko dira Finantza eta Aurrekontu zuzendaritza nagusiaren ardurapean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskubideak gauzatzea eta betebeharrak ordaintzea helburu duena.

Dirulaguntza emateko prozedura eta egin daitezkeen erreklamazioak izapidetzen diren bitartean gordeko dira datuak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, NISAE elkarreragintasunerako nodoaren, sare korporatiboko aplikazioen edo beste sistema batzuen bidez, izapide hau ebazteko behar diren kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu. Zehazki, zerga-betebeharrak,

EK\CV GAO-I-2026-02144

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta kontu korrontearen titulartasuna betetzen direla egiaztatuko da. Era berean, eskaera honi aplikatzen zaion araudian eskatzen diren agiri hauek egiaztatu eta eskuratuko dira:

• Jarduera ekonomikoen historikoa

Egiaztapen horren eta bere datu pertsonalen kontsultaren aurka egiten badu, eskatzaileak, agiriak aurkezteaz gain, arrazoituta justifikatu beharko du aurka dagoela. Eskubide hori balia dezake, bai eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo mugatzeko eskubidea ere, arduradunari zuzenduta, https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/datuen-babesa/eskubideak-erabiltzea horretarako ezarritako formularioen bidez.

Datu pertsonalen tratamenduari eta eskubideez baliatzeari dagokienez, helbide honetan ere jar zaitezke harremanetan:

dbo@gipuzkoa.eus.

Los datos de carácter personal serán objeto de tratamiento con la finalidad de tramitar los procedimientos de concesión, gestión y seguimiento de las subvenciones, en cumplimiento de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de la Norma Foral 4/2019, de 11 de marzo, de Buen Gobierno en el marco de la gobernanza pública foral. Finalidad basada en el interés público de la convocatoria y en su solicitud de participación en ella. El responsable del tratamiento será la dirección general gestora de la convocatoria. En caso de que los datos de identidad, contacto y cuenta corriente no figuren en los registros contables, los datos de identidad, contacto y cuenta corriente se incorporarán a un tratamiento bajo la responsabilidad de la dirección general de Finanzas y Presupuestos cuya finalidad es la realización de derechos y pago de obligaciones de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Los datos serán conservados durante la tramitación del procedimiento de concesión de la subvención y de las reclamaciones que se puedan formular.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del nodo de interoperabilidad NISAE, de las aplicaciones de la red corporativa u otros sistemas efectuará las consultas y verificaciones necesarias para la resolución del presente trámite. En concreto, se comprobará el cumplimiento de las obligaciones tributarias, obligaciones frente a la Seguridad Social, así como la titularidad de la cuenta corriente. Igualmente, se verificarán y obtendrán los siguientes documentos exigidos en la normativa aplicable a esta solicitud

- Histórico de Actividades económicas

En caso de oponerse a esta verificación y a la consulta de sus datos personales, la persona solicitante además de aportar los documentos deberá justificar motivadamente su oposición. Puede ejercer este derecho, así como el de acceso, rectificación, supresión o limitación dirigiéndose a la persona responsable, a través de los formularios dispuestos en https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/proteccion-datos/ejercicio-derechos.

Por lo que respecta a las cuestiones relativas al tratamiento de sus datos personales y al ejercicio de sus derechos puede también ponerse en contacto en esta dirección: dbo@gipuzkoa.eus.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos

**Komunikazio onartzea / Aceptación de comunicaciones**

Onartzen dut eskaerari buruzko komunikazioetarako posta elektronikoa lehenestea. Nire gain hartzen dut eman dizuedan helbide elektronikoaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko ardura.

Acepto que las comunicaciones sobre la solicitud se hagan preferentemente por correo electrónico. Me responsabilizo del correcto funcionamiento de la dirección aportada.

EK\CV GAO-I-2026-02144

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos

**PROIEKTUA / PROYECTO**

**Izena**

**Denominación**

**Proiektuaren azalpena**

**Descripción proyecto**

PROIEKTU HONEK ESKATUTAKO/JASOTAKO BESTELAKO LAGUNTZAK
OTRAS AYUDAS SOLICITADAS/CONCEDIDAS POR EL MISMO PROYECTO

| | Ditu / Tiene | | Ez ditu / No |
|---|---|---|---|
| | | | |

Entitate eskatzaileak honako dirulaguntzak jaso edota eskatu ditu, gaur arte, proiektu hori bera laguntzeko. Era berean, enpresa horrek konpromisoa hartzen du herri erakunde publikoetan nahiz pribatuetan, gaurtik hasi eta proiektua amaitu bitartean, aurkezten duen dirulaguntza eskaera ororen berri emateko.

La entidad solicitante, hasta ahora, además de la presente solicitud de ayudas, ha presentado y/o recibido las siguientes ayudas por el mismo proyecto. La empresa deberá comunicar cuantas solicitudes de ayuda presente en cualquier organismo público o privado a partir de la fecha de hoy hasta finalizar el proyecto.

| Erakundea<br>Organismo | Deialdia<br>Convocatoria | Onartze data<br>Fecha de aprobación | Zenbatekoa<br>Importe | Onartutako dirulaguntza<br>Subvención concedida |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | **GUZTIRA/ TOTAL** | | |



EK\CV GAO-I-2026-02144

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos

**OHARRAK / OBSERVACIONES**

| |
|---|
| |

______________________________, 20_____ko_______________________(a)ren_________(a)

En____________________________________a_________de____________________de 20_____

Izptua.: (Sinadura eta zigilua)

Fdo.: (Firma y sello)

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos

Dokumentu hau sinatzen duenak bere gain hartzen du bertan adierazitakoaren erantzukizuna eta, orobat, dokumentuen zerrendako artxiboetan jasotako informazioarena (artxiboek CSV eta HASH kodeak dituzte).

La persona firmante se responsabiliza de lo declarado en el presente documento así como de la información contenida en los archivos relacionados en la lista de documentos identificados con sus respectivos CSV y códigos HASH.

EKS kodea (Egiaztapeneko Kode Ziurra) da Gipuzkoako Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoan zaindutako artxibo bat identifikatzen duena, eta haren egiazkotasuna web orrialde honetan kontsultatzea ahalbidetzen duena:
https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/csv

El CSV (Código Seguro de Verificación) es el código que identifica un archivo custodiado en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y permite consultar su autenticidad en la siguiente dirección web:
https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/csv

HASH kodeak argi eta garbi identifikatzen du artxiboa, eta bermatzen du hura ez dela aldatu zaintzapean egon den bitartean.

El código HASH identifica inequívocamente el archivo, y garantiza que éste no ha sido alterado durante su custodia.